



«AMA IKUSTEKO BIDAIA LUZEA EGIN BEHAR NUEN, EZ NEUKAN BESTE AUKERARIK»

ONDITZ GOÑI SAGASTUME IZAN ZEN LEHENENGOTAKO HAUR MOTXILADUNA. KARTZELAN EMAN ZITUEN LEHEN URTEAK AMAREKIN, ETA BERE KASUAK MAHAI GAINEAN JARRI ZUEN EUSKAL PRESO POLITIKOEN SEME-ALABEN ERREALITATEA. > 22 Jon URBE | FOKU

KALIFATOA ETA UMEAK:
Hamar milaka preso daude Siriako kurduen eskuetan, erdiak umeak > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA
Espektatiba dantza hauteskunde garaian

IÑAKI ALTUNA > 11



4



8



12



Milaka preso jihadista, erdiak umeak, Siriako kurduen ardurapean daude oraindik 04

Ruandako genozidioak 30 urte, aurrerapauso eta zauri artean 08

Arazoetatik ikasiz: Mondragon Unibertsitateko ingeniari-tza proiekturik onenak 12

Aldaketa klimatikoari aurre egiteko sei argi-printza 18

Onditz Goñi Sagastume, aurrenetariko haur motxiladunaren testigantza 22

«Itzal(iko) bagina»: gorputza, lehia eta lotsa performatu dituzte 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



18



27

SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Apirilaren 8an joan da Ardanza lehendakaria
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Espektatibak
- 11 **Iñaki Altuna:** Espektatiba dantza hauteskunde garaian
- 16 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Ez dakit zein unetan
- 16 **Miren Azkarate Badiola:** Izenarekin barrezka
- 17 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Pello Aldaz Iriarte:** Haurren garapen-arazoak: esku-hartze programen onurak
- 21 **Xabier Izaga:** Zabarkeria gutxi balitz bezala, gaitzuste?
- 30 **Edurne Larraza Mendiluze:** Pentsaera Konputazionala, Papert eta Wing-en artean



{ datorrena } **Maite UBIRIA BEAUMONT**

Apirilaren 8an joan da Ardanza lehendakaria

Parisetik etxeratu berritan, egun batzuetan bueltaka izan ditut buruan ETaren bukaera aroari buruz han entzundakoak. Mundu paraleloak irudikatzen dira epaiketan. Honetan ere, eztabaida juridikoak hala aginduta, izan zezakeenaren eta, finen, gertatu zenaren arteko nabardurak mahaigainean jarri zituzten Auzitegi Korrekzionalean hitza hartu zutenek. Hala ere, armak alboratzeko Luhuso eszena bilakatu zuten lagunak zigortzeko auzi eskararak luzatzeko orduan pasarela gurutzatu zuen fiskalak: berdin edozein erpinetatik begiratuta, apirilaren 8koa bere xedea bete zuen plana izan zela aintzat hartuz. Hala aitortu zuen, zeharka bada ere, Txetx Etxeberriek, erabateko armagabetzea gauzatu zedin eginiko lana aringarri gisa ezaugarritu zuenean.

2017ko apirilaren 8an jendez gainezka zegoen Paul Bert plazan baieztatu zen ETaren armagabetzea egin zela. Mende erdiz iraun zuen jarduera armatuaren ibilbidea zigilatu zen Baionan. Euskal gizarteak aspalditik espero zuen eguna iritsi zen. Inork gutxik irudikatu zezakeen forman, baina heldu zen.

Bost urtez ETak onarturiko armagabetze eskema homologatuari hamaika traba ezarri zizkieten batzuek bakegileek jorratutako moldea balioztatu dute, ondoren bada ere, emaitza ekarri zuelako. Ildo horretan, adierazgarria izan zen epaiketan bi estatu ordezkarien testigantzak entzutea. Baita PSko kideen aldetik edo haien burua zentristatzat jotzen duten politikarien ahotik bi auzipetuek jaso zituzten sostengu hitzak ere.

Horrendako, garaitik kanpo eginiko auziaren tesuinguruan, diskurtso politikoan nabardura txikiena ukatzeraino bakearen balioa oroz gainetik aldarrikatu duten hainbat euskal ordezkariak konbikzioz ez bada

pragmatismoagatik egokitzeko erakutsi duten ezintasunak harridura baino kezka sortzen du. Jakina denez, egokitzeko zailtasuna egitasmorik onenaren jarraitutasuna ezbaian jar dezakeen aldagairik nagusienetakoa da. Bestalde, bakegintzari buruz soilik ez, oro har begirada zabaltzeko prestutasunik ez duten ordezkariak erronka integralei erantzuteko fidagarritasun gutxi eskaini dezakete. Usaintzen den aldaketa giroak urduritasuna sor dezakeela onartuta ere, egoeraren bilakaerari neurria hartzeko gabezia zerbait larria da.

2011ko urrian GARAn argitaraturiko iritzi artikulubatean, bere komunitate politikoak sentitu zezakeen

ETaren armagabetzearen zazpigarren urtemuga bete den egunean zendu da Jose Antonio Ardanza lehendakaria. Dolumin hitzen osagarritz, bake integrala eratzeko xedea oroitarazi du egutegiak

bidaiia-zorabioa arintzeko, hauxe idatzi zuen Julen Arzuaga abokatuak: «Ez dut uste amaiera arerio militarrek gogoz kontra emandako besarkada batekin antzetzuko denik, ez da atzamarrak bizkarrean gurutzatuta sinaturiko kapitulazio batekin ere. Hala ere, ezagutu dugun bezala, gatazkaren amaiera helduko da». Amaiera heldu zen. Ez zen gertatu aspalditik lurperatuta zegoen Ajuria Eneako Itunak finkaturiko parametroetan; ez da ETak bere ibilbidean egokitu zuen negoziazio eskema klasikoaren arabera. Jose Antonio Ardanza zendu da herri bultzadapean gauzatu zuen armagabetzearen egunean. Lehendakaria itzali da, egunez egun, dena aldatu zuen apirilaren 8tik zazpigarren urtemugara. Bakea amets izan zuten guztien memoria ekintzen bidez betiketza baino omenaldi hoberik ez dagoenez, geroa dinamika inklusiboak hoberetsita eraikitzeko xedea oroitarazi du egutegiak. •

KALIFATOAK BAHITUTAKO UMEAK

Hamar milaka preso jihadistista Siriako kurduen ardurapean, erdiak umeak

Rozena, 31 urte, Guyanako. 2015ean Turkiara joan zen. Errefuxiatu siriarrrez ardura-tzen zen GKE batekin bat egiteko asmoz. Hala dio beti, ez du beste azalpenik ematen bere Estatu Islamikoarekiko lotura argitzeko. Lau urte egin zituen kalifatoan, 2019an kurduak jihadisten mendeko azken herria askatu zuten arte.

Rozenak Roj presondegi-kanpalekuan igaro ditu azken bost urteak. Siria ipar ekialdean dago, Rojavan. 3.000 daude bertan preso, Elren ondorengoak denak. Atzean, historiaren bazterbidean gelditu da talde jihadistaren sasi estatu hura. 2015. urtearen amaieran, 12 milioi pertsona inguru bizi ziren bertan, muturreko

ESTATU ISLAMIKOA / Jewan ABDI

Estatu Islamikoaren gainbeheran bost urte bete berri direla, hamar milaka preso daude oraindik Siriako kurduen ardurapean. Atzerritik iritsitakoak dira asko, eta umeak baino ez, kopuru osoaren erdia baino gehiago. Euren gobernuek entzungor egiten diete aberriratzeko eskaerei, eta kurduak horren arriskuaz ohartarazi dute.

lege islamikoaren pean. Luze jo zuen gerrak, eta, 2019ko udaberrian, kurduak –EEBBren babesaz– Baghouz izeneko azken herria setiatu zuten. Elren buruzagi nagusiek ihes egitea lortu zuten ordurako; Rozenak eta bere bi seme-alabek, ordea, ez zeukaten inora joaterik.

Alanbrez jositako plastiko eta kartoizko txabola da Rozenarena ere. Bertan, izkina batean, jostailuak eta liburu batzuk dituzte bere bost eta zazpi urteko umeek. «Haurtza-

ro petrala da beraiena», dio amak. «Oinarrizkoena ere falta zaie: eskola bat ez ezik, aire freskoa, ur garbia... dena».

Egia da, batzuek kanpalekutik ihes egitea lortu omen dute. Rozenak dio 15.000 dolar ordaindu behar direla, «eskupekoa barne», baina Roj-en gutxik daukate horrelako kantitaterik. «Nire bi seme-alabekin irteteko dudak aukera bakarra aberriratu izatea da», gogoratu du presoak. Baina Guyana da orain arte bere herritarrak aberriratzeari uko egiten dion herrialdeetako bat. Rozenak dio «era guztietara» saiatu dela bere gobernua- ren atea jotzen, baina ez dela erreakziorik izan. «Nire seme-alabak ez dira mehatxu bat, ezta ni ere», azpimarratu du.

Bere umeak kanpalekuan erradikalizatzea du beldur

handienetako bat. «Hemengo jendearen erdia Elren ideologia erradikalari atxiki zaio egun ere. Nire seme-alabak ahal dudak ondoen hazi ditzaket, baina haiek beste gauza batzuk ikasiko dituzte beste haurrekin jolastean», beldur da gatibua.

ERRADIKALIZAZIOA

Rojavan Siriako zenbait herritar Estatu Islamikoarekin us-tezko loturengatik epaitu dituzten arren, Siria Ipar eta Ekialdeko Administrazio Auto-nomoak (SIEAA) ez du nazioarteko onarpenik, beraz, ezin ditu atzerriko herritarrak auzipetu.

SIEAAren datuen arabera, Elrekin inoiz loturarik izan duten familietako 31.000 haur baino gehiago daude kurduen zaintzapean. Ezkontza behar-

30.000 umetik gora daude Rojavako presondegi-kanpalekuetan. Jewan ABDI



tuak edo bortxaketak tarteko jaio dira asko. Gehienak Al Hol kanpamentuan daude. Oso gune zabala da, basamortu erdian plastiko eta kartoiak laku erraldoi baten erakoa. Bertan, neguko euri etengabeek eta udako eguzki kiskalgarriak astindutako milaka kanpadenda inprobisatu daude.

GAUR8k Al Hol-eko kanpalekuko zuzendari Jihan Hananekin hitz egin du. Emakume kurduak dioenez, 50 nazionalitate ezberdinetako 50.000 pertsona baino gehiago daude bere ardurapean. Haurrak dira bere kezkarik handienetakoa.

«Bi eskola baino ez ditugu, eta haur guztiak ez dira zentro horietara joaten, batez ere 12 eta 18 urte bitartekoak. Ahulena dira hemen, erradikalizatutako emakume asko haien garuna garbitzen saiatzen baitira», salatu du Hanan-ek. Go-

goan ditu iraganean izandako «eraso hilgarriak» ere. «Segurtasun operazio bereziak egin behar izan genituen. Egun, lapurretak eta mehatxuak baino ez dira gertatzen, baina GKEetako kideak ere helburu dituzte», gaineratu du funtzionarioak. Dioenez, Estatu Islamikoak kanpalekuan dituen zelula lotiak dira mehatxurik handiena. «Arriskuak dira oso, beti umeengana hurbiltzen dira euren artean errekrutatze asmotan edo, besterik gabe, haiek bahitzeko», ohartarazi du.

BENETAKO ETXE BAT


Antza, beren jatorrizko herrialdeetara aberriratzea da irtenbide bakarra askorentzat. Estatu Batuetako Estatu Departamentuko iturrien arabera, 2023 urte amaierarako

KALIFA HERRIA EGUN

2024an, 10.000 Eiko borrokalari daude preso Siriako kurduen esku. Aldi berean, talde jihadistarekin ustezko lotura duten 50.000 norbanako daude Roj eta Al hol presondegi-kanpalekuetan, emakumeak eta umeak gehienak. Nazio Batuetako idazkari orokorra den António Guterres-ek “munduko kanpaleku txarren”-tzat jo du Al Hol. Siriako kurduak, alabaina, hainbat ahalegin egin dituzte honako egoera ekiditearren. 2019an, Siria Ipar eta Ekialdeko Administrazio Autonomoak nazioarteko auzitegi bat ezartzea proposatu zuen Eiko presoak auzipetzeko. Egitasmoak Suedia eta Herbehereen babesaren arren, nazioarteko erakundeak ez zuten ontzat eman. Gauzak honela, Siria Ipar eta Ekialdeko Administrazio Autonomoak 2000 Eiko borrokalari atzerritar epaitzeko asmoa adierazi zuen, 2023ko ekainean. Egitasmoa nazioarteko aitopen ezak utzi zuen bertan behera. SIEAAk ez du etsi, eta etengabe eskatu dio nazioarteko

komunitateari bere hiritarrak aberriratu ditzan. Hainbat herrialdek hainbat aurrerapauso eman badituzte ere, gizonezkoen %4 baino ez da aberriratu 2019tik. Rojavan ez ezik, mundu mailan ere Estatu Islamikoak mehatxu zuzena izaten jarraitzen du. Baghouz azken herria 2019an galdu zuenetik, talde jihadistaren ondorena munduan zehar zabalduta da, Afrikako Sahel eskualdean eta Afganistanen batez ere. Estatu ahulenak izan ohi dituzte begi puntuan. Kongoko Errepublika Demokratikoan, esaterako, taldearen erasoak eta hildakoak biderkatu egin dira 2018az geroztik, eta makina bat izan dira EI Khorasan Probintziak burututako erasoak Afganistanen, talibanen kontra oraingoan. Hori gutxi ez, eta, iragan urtarrilean, jihadistek ehundik gora lagun erail zituzten Kerman hirian (Iran) burututako atentatua. Ehunka hildako eta zauritu utzi dituen Moskuko martxoko eraso ere bere gain hartu du EIk.





3.500 pertsona baino gehiago aberriratu dituzte 14 herrialde-tara. Kopuru hori, alabaina, oso txikia da oraindik. Ez da iristen preso guztien %10era.

2022an, Human Rights Watch-ek burututako ikerketa batek aberriratutako 100 haur baino gehiagoren esperientziak jaso zituen. Gehienak es-

kolara joaten ziren, eta haietako asko nabarmentzen ziren ikasketetan. Inkestaturen %82k haurraren ongizate emozionala eta psikologikoa «oso ona», edo «nahiko ona» zela adierazi zuen. «Estatu Islamikoan eta Siriako ipar-ekialdeko kanpaleketan bizi-baldintza gogor-rrak pairatu arren, ume asko

ederki integratzen ari dira beren komunitate berrietan», laburbiltzen zuen txostenak.

Suedia izan da bere herritar gehienak aberriratu dituen herrialdeetako bat. Baina joera aldatu egin zen eskuin muturra aliatu duen alderdi bat gobernuan sartu ondoren, 2022ko iraileko hauteskundeetan.

Euren ardurapean dauden umeak erradikalizatzea da kurduen beldur nagusietako bat. Jewan ABDI

«Pertsona horiek Estatu Islamikoarekin bat egitea aukeratu zuten, eta horixe da ezagutu dugun erakunde terrorista ankerrenetako bat. Honela, Suediak eta Suediako gobernuak ez dute etxean hartzeko betebeharririk», argudiatu zuen Tobias Billström Suediako Kanpo Arazoetako ministroak, martxoaren 13an, TV4 telebista suediarri egindako elkarrizketan.

Denak ez daude ados. Repatriate the Children GKE suediarra haurrak etxera bueltatu daitezkeen lanean ari da. «Ume horiek han uztea eta ez aberriratzea erabaki politiko hutsa da», diosku, telefonoz eta Koppenhagetik, RTCKo sortzaile-kide eta bozeramaile Natascha Rée Mikkelsenek.

«Haur batek ikusi behar ez lituzkeen gauzak esperimentatu dituzte: gerra, segurtasunik eza, hezkuntza edo osasun-arreta egokirik ez izatea... In-





gurune horretan abandonatu-
ta uztean, Elren ideologiarekin
bat egiteko arriskua handiegia
da oraindik», berretsi du Mik-
kelsenek. «Ume hauei lagun-
tzen ez badiegu, ezin dut ima-
jinatu nolakoa izango den
beren bizitza etorkizunean.
Eta hori ez da soilik adminis-
trazio kurduaren erantzukizun
hutsa» azpimarratu du. Bes-
teak beste, Turkiako aire-eraso
etengabeak eskualdea ezegon-
kortzeko faktore nagusietako
bat direla dio daniarrak.

Siria Ipar eta Ekialdeko Ad-
ministratio Autonomoak
behin eta berriz adierazi du ez
duela baliabiderik milaka fa-
milia horiei arreta emateko.
Bestalde, Nazio Batuetako goi-
funtzionarioek ere eskatu die-
te gobernuei beren herritarrak
aberriratzeko.

«Herrialde guztiek zaindu
beharko lituzkete beren herri-
tarrak, batez ere emakumeak
eta haurrak», azaldu digu Ab-

dulkarim Omarrek, telefonoz
eta Bruselatik. Siria Iparreko
eta Ekialdeko Administrazio
Autonomoaren Europako or-
dezkarria da.

«Prozesu luzea izango dela-
koan gaude, beraz, laguntza
eskatzen diegu herrialdeei»,
gaineratu du arduradun kurdu
gorenak. Euren zaintzapean

dauden presoek baldintzak
hobetzeko beharra ere azpi-
marratu du. Munduak entzun-
gor egitekotan, Omarrek argi
dio: «Epe laburrean neurriak
hartzen ez badira, laster terro-
risten belaunaldi berri bati au-
rre egingo diogu, eta mundu
osoarentzat izango dira meha-
txuak».



UMEEN ABERRIRATZEA, BEHERANTZ

Nazio Batuen datuen arabera, Siria iparreko
kanpalekuetan dauden haurren aberriratzek %50
jaitsi dira aurtan. Urte hasieratik hona, Kirgistanek
baino ez ditu herriratu bere hiritarrak (72 ume eta 27
emakume). Honela, jatorri atzerritarra duten 6.000
ume baino gehiago daude oraindik Al Hol eta Roj
kanpalekuetan, eta askoz gehiago dira guraso
irakiarrak edo siriarrak dituztenak. Haurren
aberriratzeko prozesuak izan duen beherakada gogotik
salatu dute hainbat GKEk. Ildo berean, Save the
Children-ek salatu berri du Suediak bere hiritarrak ez
aberriratzeko hartu duen erabakia. Bitartean,
kanpalekuetako bizi eta segurtasun baldintzak gero eta
gorriagoak dira. Iragan urtarrilean, segurtasun
operazio batek GKE guztien jarduna eten zuen bi astez,
hainbat eta hainbat oinarritzko zerbitzu eta hornidura
moztuz aldi berean. Medecins Sans Frontiers GKEak
osasun mentalaren eta arreta psikosozialaren arloetan
dihardu Al Hol kanpaleku barruan. MSF-ek iragan
urtarrilean ateratako txostenak trauma osteko
desordena, depresioa eta antsietate kasuen «goranzko
joera» detektatu du. GKEren aburuz, umeak dira
gehien sufritzen ari direnak.

RUANDAKO GENOZIDIOA

30. urteurrena, aurrerapauso eta zauri artean, Gazako sarraskia gelditu gabe

📁 **HISTORIA** / Mainer IANTZI GOIENETXE

Nazioarteko komunitateak «abandonatu» zituela salatu du Ruandako presidentek, Paul Kagamek, genozidioaren 30. urteurrenako ekitaldian. Muturreko hutuek tutsien aurka egindako sarraskiak 800.000 hildako eragin zituen ehun egunean. Gaur egun Israel inpunitate osoz Gazan egiten ari den hilketek Ruanda oroitarazten dute.

Ruandak 14 milioi biztanletik gora ditu, eta, Munduko Bankuaren datuen arabera, haien batez besteko adina 19 urtekoa da. Gehienek ez dute genozidioa oroitzen, edo ez zuten bizi izan. 1994an 6 milioi laguneko herrialdea zen. Ehun egunean 800.000 pertsona hil zituzten, batik bat tutsiak, hutu moderatuak ere bai, anitz aihotz kolpez. Emakumeak bortxatu zituzten, eta umezurtzez bete zen herria. Iragan igandean, apirilaren 7an, ehun eguneko dolua hasi zuten genozidioaren 30. urteurrena oroitzeko. Paul Kagame presidentek eta Jeannette dama nagusiak su tradizionala piztu zuten Kigali hiriburuan

Paul Kagame Ruandako presidentea eta Jeannette lehen dama su tradizionala pizten, Kigaliko Genozidioaren Memorialean. Ondoko irudian, ruandar bat hildakoei loreak eskaintzen. Luis TATO / AFP

dagoen Genozidioaren Memoria Zentroan. Bertako hobi komunitetan daude sarraskiaren 250.000 biktimen gorpuak.

Handik, BK Arena eraikinera joan ziren. «Gure bihotzak berdin betetzen ditu doluak eta esker onak. Gure hildakoak gogoratzen ditugu eta eskertuta gaude Ruanda zer bihurtu den ikusita», adierazi zuen Ruandako Fronte Abertzalearen sortzailea izan zen presidentek. 1994ko uztailean boterea hartu eta hilketei amaiera eman zien taldea gobernuan dago orduetik.

«Nazioarteko komunitateak denok abandonatu gintuen, erdeinuz edo koldarkeriaz», gaitzetsi zuen milaka lagun aitzinean, tartean munduko dozena bat estatuburu eta gobernuburu; Etiopia, Hegoafrika, Tanzania, Estatu frantsesa

eta Txekiar Errepublikakoak, besteak beste.

Afrikako Batasuneko presidentea, Moussa Faki Mahamat, hala mintzatu zen: «Tribu, arraza, erlijio, kultura edota ekonomia oinarri duten diskriminazioetatik elikatzen diren gatazka sakonen testuinguru honetan, Ruandak eredu bat eskaintzen du umiltasun osoz, eta bere eragin baikorrek Afrikaren mugak gainditzen ditu».

BELGIKA ETA ESTATU FRANTSESA

Genozidioak erlazio zuzena du kolonizazioarekin. Belgikak Ruandako Errepublika kolonizatu zuen 1923an, eta bere agintaldiak iraun zuen bitartean biztanleria etnien arabera banatu zuen, tutsiei mesede eginez, gehiengoa (%85) ziren hutuen aitzinean. Horrek ha-



markadako gorrotoa ekarri zuen eta, azkenik, sarraskia.

Europako Batzordeko presidentek, Charles Michel belgikarrak, hala adierazi zuen: «Belgikarra naiz, europarra. Badakit nire kontinenteak, Europak, zer zor dion zuen kontinenteari, Afrikari. Ezagutzen dut historia bere sustraiekin, bere handitasun eta lotsekin (...). Horregatik, Belgikako Gobernuak barkamena eskatu zuen 2000. urtean».

Bestalde, Emmanuel Macron presidente frantsesak, bere ordezh Stephane Sejourne Kanpo ministroa bidali zuenak, mezu bat helarazi zien ruandarrei bidez. Bertan, genozidioaren aitzinetik hutuen Gobernu militarri lagundu zuen estatuko buruak 2021ean Kigalin erran zuena oroitu zuen. Bere herrialdearen «ardura» onartu

Human Rights Watch Gobernu Kanpoko Erakundearen arabera, hilketen ardura NBEk eta hiru gobernuak izan zuten nagusiki: Belgikak, AEBek eta Estatu frantsesak

NBEak «ez zuen ongi orientatu». Belgikak «presaz atera zituen tropak». AEBek «diruari» begiratu zioten eta Frantziak «genozidioa egiten ari zen gobernu» babestu zuen

zuen orduan, ikuskatzaileek genozidioa zetorrela eta alarma jo arren, ez zituelako entzun. Halere, hilketen «konplize» izan zela gezurtatu zuen.

Bill Clintonek ere egin ziotuen adierazpenak. Genozidioa gertatu zenean AEBen presidentea zenak hilketak horiek gelditzeko deus ere ez egitea bere gobernuaren porrotik handiena dela aitortu zuen.



HITZ HUTSAK, KRIMENA ERREPIKATZEN ARI DENEAN

Paul Kagame Ruandako presidentek igandeko ekitaldian erran zuen bezala, «hilketak etniko baterako baldintzak edozein tokitan sor daitezke kontrolatzen ez badira». Egun berean, Europako Batasunak «konpromiso irmoa» adierazi zuen «mundu osoko genozidioei eta gizateriaren aurkako edozein krimeni aurre hartzeko». «Iraganeko ikasgai mingarrietatik ikastera eta halakorik gehiago ez errepikatzen egin beharrekoa egitera» deitu zuen nazioarteko komunitatea.

Ildo beretik mintzatu zen Antonio Guterres Nazio Batuen Erakunde idazkari nagusia: «Elkar hartuta borrokatu behar dugu gorroto eta diskriminazio mota guztien aurka. Ziurtatu dezagun 1994ko apirilaren 7an hasitako ekintzak ez inoiz ahaztea eta ez inoiz errepikatzea, inon ere». Azaldu zuenez, «gorrotoa da genozidioaren sustraia, eta lerro zuzen bat marraztu dezakegu milioi bat tutsiren hilketaren eta aurreko gorrotoaren artean, tentsio etnikoek eta kolonialismoaren itzal luzeak sustatuta».

Hitz horiek guztiak erori egiten dira, ordea, Gazan genozidioak aitzinera segitzen duen bitartean. NBEko Justizia Auzitegi Gorenak Israeli neurriak hartzeko eskatu zion, bere armadak genozidiorik egin ez zezan Zerrendan. Eskatera hori Hegoafrikako Gobernuak epaitegi horretan aurkeztu zuen salaketa baten ondorio izan zen. Hegoafrikak segurtatu zuen Israel Gazan egiten ari den operazio militarren «eskalak duela 30 urteko Ruandako genozidioa oroitarazten duela». Sei hilabetean, 33.100 pertsona hil dituzte gutxienez Gazan, horietatik 9.560 emakumeak eta 14.500 haurrak, Zerrendako Osasun Ministerioaren arabera.



Belgikako teniente koronel bat bala zuloak dituen eraikin batean. Luis TATO | AFP



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Espektatibak

kuspegi konstruktibisten arabera, psikologian, «errealitate» neurri bateraino behatzen duen egindako eraikuntza da. Beraz, subjektiboa da. Ikusten eta behatzen dugun guztia gure iragazki pertsonaletik igarotzen da. Iragazki hori gure balioek, sinesmenek, esperientziek, ezaugarri biologikoen, harremanetakoek eta psikologikoen osatzen dute, bai eta unean indarrean dagoen testuinguru kulturalak ere. Askotan esan ohi da geure buruaz dugun kontzeptua ehunduz joan dela beste batzuek gure bizi-ziklo osoan zehar gure pertsonarengan izan duten eraginarengatik. Gure gurasoak, irakasleak, lagunak eta lan-kideak mantu sotil hori iruten joan dira, askotan gutaz dugun irudia izan arte. Horrez gain, ingurukoengan norberak sortzen dituen itxaropenak gehitzen bazaizkio, konturatuko gara zein armiarma-sare bitxitan ibiltzen garen egunero.

Espektatiba bat zerbait norberak suposatzen duen bezala gertatuko delako uste sendoa da, norberaren errealitatearekin lotuta dagoena. Ikuspegi hori berdin aplikatzen zaie gertaerei eta pertsonari. Dena sinesmen batekin hasten da, irakatsi digutenaren, ikasi dugunaren eta izan beharko lukeela uste dugunaren arabera elikatzen dugunarekin. Maitasunari, familiari, lanari edo geure buruari buruz. Hortaz, gure sinesmenak ez dira errealitatez eginak, gure errealitatea da gure sinesmenegaz egin dagoena.

Hau da, gizakiak bere etorkizunari eta besteekiko harremanari buruzko itxaropenak eraikitzen ditu. Itxaropenak maneiatzeak gure helburuak eta sinesmenak doitzen jakitea esan nahi du, zoriontasunean inbertitzeko. Ez da artisautza erraza. Azken batean, gehiegitxo itxaron ohi dugu besteengandik, geure buruarengandik eta baita norbere bizitzatik ere. Joera arrunt horrek sufri-mendura garamatza askotan; izan ere, ongi esan ohi denez, ona ez da hain ona, onena bakarrik espero denean.

Jean Piaget psikologoak adierazi zuenez, haur txikiek arazoak izaten dituzte beren barneko munduan gertatzen dena eta kanpoan gertatzen dena bereizteko. Sei edo zazpi urterekin denok ibiltzen gara “pentsamendu magikoak” eta nahi duguna gertatuko delako ideia klasikoak markatutako garai batean. Bitxi-ena da pertsona batzuk helduarora iristen direla eskema horren oinarriak

sendotuz. Horrek sinetsarazten die munduak bat etorri behar duela beraien errealitatearekin, nahiekin eta itxaropenekin: “mundu guztiari gustatu behar natzaio”, “estimaten ditudan pertsonak nik espero bezala jokatu behar dute beti”, “behar adina ahalegintzen banaiz, nahi dudana gertatuko da”...

Bizitza ez da beti norberak nahi duen bezalakoa, pertsonak (batzuetan) ez dira norberak itxaroten duen bezalakoa, eta batzuetan erabat ezinezko helburuak bilatzen ditugu. Itxaropenen armiarma-sarea oso zabala izan daiteke. Pentsatu behar da zenbat aldiz jokatzen dugun besteek espero dutenaren arabera, edo zenbat aldiz gogaitzen garen besteek ez dutelako uste bezala jokatu.

Etsipenen aurkako antidotoa itxaropen egokiagoak lantzea da. Zure kontroletik kanpo dauden gauzak itxarotea etsipen baten ataria da. Espektatibak maneiatzeko, zuk bakarrik kontrola dezakezun horretan jarri behar duzu arreta, ikuspegi irekiago bat kontuan hartuz.

Espektatibak egitea, guztiaren hasiera izan daiteke, landatu beharreko hazia, baina, horretarako, asmoak, tresnak eta “elikagaiak” behar dira. Horrela bakarrik izango da imajinatzen duguna, apurka-apurka, benetakoa.

Itxaropenak saihetsezinak dira. Hala ere, ematen diegun sinesgarritasunak eta horiei zenbat eusten diegun jakiteak erabakitzen dute nola sentitzen garen. •

saioaaginako@gmail.com



Batzuetan gehiegitxo espero dugu gure buruarengandik, besteengandik eta bizitzatik orokorrean. GETTY IMAGES

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Espektatiba dantza hauteskunde garaian

Aste Santuko opor egunek eta Athletic-ek irabazitako Kopa finalaren partidak zein haren ondoko ospakizunek hauteskunde kanpaina murriztu dute. Ez daki-
gu oraintxe ezohiko kanpaina honek (ba ote da ohikorik) zer eragin izango ote duen azken emaitzan. Azken aldietan hamabost egunez boz bila aritzeko jardunak garrantzia eta eragina izan zutela diote adituek. Ea, bada, oraingoan.

Kanpainaren lerroburu nagusi EAJren eta EH Bilduren arteko lehia bilakatu da, hedabideetan ari diren analistek eta inkestek hala indartuta. CISen azkenak EH Bildu jarri du lehen indar. Aho biko ezpata izan daiteke ezkerreko independentismoa ordezkatzeko koalizioarentzat. Irabazteko espektatibak gizentzen duen bezalaxe, espektatiba horiek oso-osorik ez betetzeak frustrazioa ere eragin baitezake, oso emaitza onak lortuta ere. Horregatik, beharbada, haien diskurtsoa, igandeko emaitza baino harago, aurrera begira zabalduko zatekeen aldi politikoan jartzen saiatzen ari dira.

Alternantzia politiko hutsetik haragoko mezuari heldu diote, eta maila batean ezustean harrapatu ditu denak. *Sorpasso* delakoak ez du haren mezuaren erdigunea hartu, kooperazio eta akordio aukerak aztertzeak baizik. «XXI. mendeko urte erabakigarrietan beharrezkoa da etorkizuneko herri proiektu sendo bat osatzea, epe ertain-luzeko begiradarekin eta ezberdinen arteko kooperazioan oinarrituta», idatzia du Pello Otxandianok, eta ETBko eztabaidan helduleku horri eutsi zion.

Azken boladan hauteskundeetan izandako beherezko joerak EAJ alertan jarri du. Espektatiba txarrak izan ditu aurreko hilabeteotan, eta horrek aztoratu du mundu hori. Zentzu okerreanean, hil ala biziko erronkatzat hartu dituzte hauteskunde hauek. Ikusgarria

da sare sozialetan EAJko hainbat militante eta, are nabarmenago, gero eta ugariago diren *troll* jelkideak erakusten ari diren zakarkeria. Talkara jotzeko gogo dute, kanpaina hasi eta egun gutxira Joseba Egibarrek azaldu zuenez: «EH Bildu etxekalte da instituzioetan, kabira zikina botatzen duen txoria».

Espektatibak bete daitezke edo huts egin dezakete. Eneko Anduezarrena bigarren aukeraren kasurik nabarmenetakoa da. Idoia Mendia PSEren buru zela, Mendia ordezkatu zuen belaunaldiak aldarte irekiagoa eta, 2011tik aurrera, Aieteko Konferentziaren ostean, abiarazitako garai berrirako jokabide egokiagoa izango zuela zabaldu zen kazetari eta politikarien arteko solas-lekuetan. Espektatiba ez da bete, alajaina.

Gainera, konparazioa ez da denboran egin behar. Une honetan bertan alderatze hori Alderdi Sozialistak beste eremu geografikoetan duen jokabidearekin egin

Alternantzia politiko hutsetik haragoko mezuari heldu dio Pello Otxandianok, eta maila batean ezustean harrapatu ditu denak

daiteke. Nafarroan edo Madrilen gertatutakoek Anduezarren soslaia are nabariago azaleratzen dute. Nola liteke Espainiako Gobernuko ordezkariak baino jarra hertsia izatea? Giltzarrapoaren rola hartu du bere gain, horrek EAJri baldintzarik gabe lotzea ekarri arren eta, hala behar izanez gero, PPren babesaren mende jarri arren. Giltzarrapoa, etorkizunera begirako aukerak eta eztabaidak galarazteko.

Espektatiba batzuk hauteskunde egunean eta gobernu osatzeko ondoko negoziazio saioetan argitu-ko dira, baina beste berri batzuk sortuko dira. Boliek aurrera segituko baitu. •

ARAZOETATIK IKASIZ

Mondragon Unibertsitateko ingeniari-tza proiekturik onenak

📁 **IKASKETAK** / Maider IANTZI GOIENETXE

Benetako arazoak konpontzea oinarri duen ikasketa metodoa da PBL (Project Based Learning). Mondragon Unibertsitateak duela 15 urtetik erabiltzen du. Metodologia horren bidez gauzatutako 27 ingeniari-tza proiektu aurkeztu dituzte ikasleek kide, irakasle eta enpresen aitzinean, eta guk lau talde sarrituen lana ezagutu dugu.

PBL (Project Based Learning) metodologiari esker, Mondragon Unibertsitateko ikasleek ikasten duten guztia probatzen dute. Berriki PBL Eguna egin dute, eta bertan, Batxilergoko hainbat ikastetxetako gazteek MUko ingeniari-tzako hamar modalitatetan ikasten ari diren lehen,

bigarren eta hirugarren mailako ikasleek egindako lanak bertatik bertara ikusteko aukera izan dute.

Gazteek aurkeztu dituzten 27 proiektuen artean onenak aukeratu dituzte irakaslez eta enpresariz osatutako epaimahai banak. Lau talde finalistekin elkartu da GAUR8, beraien esperientzia eta ekarpena jasotzeko.

FOTOTERAPIAKO INKUBAGAILU ITXI ETA MOLDAGARRI BAT

Ane Berastegui, Idoia Zabalo, Ibai Azpeitia, Joane Legarreta eta Iker Amor ingeniari-tza biomedikoko gradu-hirugarren maila egiten ari dira. Fototerapiako inkubagailu itxi bat diseinatu dute jaioberrientzat, baita proiekturik onenaren lehen saria jaso ere, 1.000 eurokoa, Orona Fundazioaren eskutik.

Anek eta Idoiak kontatu digutenez, lehendabizi ikteriziaren berri jakin zuten, min hori edo larruminarena, hori tratatzen baitu fototerapiak, bilirrubina maila igotzerakoan gorputzeko larruazalak eta mukosek hartzen duten kolore horixka.

Hurrena, merkatua aztertu zuten, zein inkubagailu mota dauden eta zein behar dauden ikusteko. Ospitale batzuetara joateko eta langile eta gurasoen iritziak jasotzeko aukera izan zuten. Horiek aintzat hartuta, bost berrikuntza dituen inkubagailu bat diseinatu dute hiru dimentsiotan. «Langileek esan ziguten inkubagailuan bertan erabiltzen den X izpien erretilua manipulatzeko atea ireki behar dela, eta ondorioz, barneko ingurumena apurtzen dela. Gure inkubagailuan erretilua kanpotik maneiatu daiteke. Horrela ez dira barruko baldintzak aldatzen eta umeak denbora osoan jasotzen du tratamendua». Bestalde, existi-

tzen diren inkubagailuetan eskuarekin ireki behar dira leihoak, aldiro desinfektatu eta esterilizatu. «Langileak laguntzeko asmoz, sistema bat erabili dugu leihoak irekitzeko. Hala, eskuak libre izango dituzte eta ez dute aldiro garbitzen ibili beharko».

Horrez gain, merkatuan ikusi zuten inkubagailuek ez zutela fototerapia lanpara barruan txertatua. «Guk bertan finkatu dugu, bere posizioa eta altuera aldatzeko aukera bermatuz, tratamendua jaioberri bakoitzari egokitzeko. Bilirrubina maila ikusita, lanpara urrunago edo gertuago jarri daiteke». Inkubagailuaren barne-parametro batzuk etengabe monitorizatze-ko aukera ematen duen software bat ere diseinatu dute.

Eta hori guztia nola egin dute? «Fase desberdinak daude, eta denak talde-kideen artean eraman ditugu aurrera ahalik eta modu eguneratuenean, astero bilerak eginez, sortzen ziren zailtasun eta zalantzak argitzeko. Horixe da edozein proiekturen zailtasun nagusia: denok ongi koordinatzea. Teknikoki, interfazea zerotik garatu dugu».

Hasieran langileen iritziak jaso zituztenez, behin egitasmoa garatuta berriz haiekin biltzeko asmoa zuten, diseinua gehiago fintzeko. Baina ezingo dute hori egin. «Pena horrekin gelditu gara, ez dugulako zirkulua itxi. Ez dugu aukerarik. Sei hilabeteko proiektua da eta,

behin bukatuta, hurrengoarekin hasten gara. Beste pertsona batzuen esku utzi daiteke, hori bai».

EKITALDIA, EZUSTEZ EZUSTE

PBL Egunaz galdetuta, «nahiko luzea» egin zitzaie aitortu digute. «Nekatuta amaitu genuen, baina pozik. Epai batzuk pasatu genituen, eta lau finalista aukeratu zituzten. Behin aukeratuak

izandakoan, gero eta jende gehiago azaldu zen, eta behin eta berriro azaldu genion proiektua jende askori. Gero, enpresako epaileak etorri ziren, eta horiek aukeratu zituzten lehen sariak. Ez genuen espero hain urrutira iristerik, sorpresaz sorpresa joan zen eguna».

Komentatu dietenez, jendeari asko gustatu zaio diseinatu duten inkubagailua eta interes handia sortu du. «In-



Ikasleak, PBL Egunean, haur jaioberrientzako inkubagailua aurkezten. MU

kubagailu nahiko erakargarria egin genuen, argiak piztuta, eta iritzi onak jaso genituen».

Momentuz ez dute aukerarik izan ospatzeko, baina afari edo bazkariren baten ideia dute.

ZERTARAKO

Nola bizi dute ikasleok proiektuetan lan eginez ikastea? Anek adierazi duenez, «nahiko aberasgarria» da. «Behin karrera bukatuta hemendik kanpo zein arazo topatuko dituzun ikusten duzu. Orain, proiektuetan arazo txikiak izaten dira, eta horiei erantzutea aberasgarria da etorkizunean zertan ibiliko zaren jakiteko, nola moldatuko zaren probatzeko, bai proiektuak zuzentzen eta bai arazoei aurre egiten».

Idoiak erantsi du ikasitakoa praktikan jartzen dutela eta ikasten dutenak zertarako balio duen ikusten dutela. «Interesgarria da denbora osoan zertarako ikasten ari garen ikustea».

ETORKIZUNA

Gero eta hurbilago dute lan mundua. Aneri ikerketa gustatzen zaio. Azaldu digunez, horren alde jotzen dute askotxok. «Biomedikuntzan arlo asko daude hortik joan zaitezkeenak. Aldameneko enpresetan badauzkagu nahikoa aukera».

Azken kurtsoan atzerrira joanen dira kide dezente ikasketak jarraitzera, baina Idoia eta Ane ez dira inora joanen. «Nik ez nuen ikusten nire burua kanpoan lan egiten, nahiago nuen hemen egitea eta hemengo enpresak ezagutzea. Gerora ere denbora izango dut atzerrira joateko», adierazi du Idoiak.

«Ni antzeko, hemen geratzea erabaki dut, hemengo enprekin kontaktuan», segitu dio Anek.

Hurrengo proiektua "start up" bat sortzea izanen dutela uste dute. Baina elkarrizketaren unean oraindik ez zekiten deus ere.

HASIBERRIENTZAKO SURF FOIL JASANGARRI ETA SEGURU BAT, DESMUNTATU ETA GARRAIATU DAITEKEENA

Elena Rodriguez, Haimar Calle, Txomin Perea eta Jon Osmaren taldeak surf foil bat diseinatu eta fabrikatu du. Surf taula estandarraren aldaera bat da, behealdean hegats bat duena taula uraren gainetik mugitu dadin. Ikasleek eraiki duten taula honen ezaugarri nagusia jasangarritasuna da. Jatorri biologikoko materialak erabili dituzte propietate mekaniko hoberekin; nilo-zuntza eta bioepoxi erretxina, besteak beste.

Diseinua hasiberrientzat egin duteenez, segurtasuna eta egonkortasuna ere funtsezkoak dira taula prototipo honetan. Gainera, taula desmuntagarria eta garraigarria da. Gaur egun ez dago merkatuan halakorik.

Industria prozesuetako graduko hirugarren maila ikasten ari den lauko-teak bigarren saria eskuratu du lehia-ketan, 500 eurokoa.

Kontatu digutenez, Unibertsitatean beti bultzatzen dute praktikak, talde lanak eta proiektu ikusgarriak egitea. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailan, lauhileko bakoitzean egitasmo batean sartzen dira buru-belarri. Eman dituzten ikasgaiak biltzen ditu proiektuak.

Surf foila sortzeko, gaur egungo joera bati erreparatu zioten: «Turismoa igotzen ari da, batez ere kostaldean. Horrekin batera, surfeko federatu kopurua esponentzialki ari da handitzen. Surfa eta turismoa egiten duten pertsonen beste aukera bat ematea erabaki genuen, kirola egiteko teknologia berritzaile batekin».

Hoberena hasiberrientzat diseinatzea zela ikusi zuten. «Hala, jende berria erakarriko dugu, eta pixkanaka merkatua handitzen joango gara».

«Garatu dugun proiektua prototipo bat da. Merkaturatzeko, dena finkatuta egon beharko litzateke», argitu dute. «Helburu nagusia lortu dugu: material jasangarri batzuk aplikatzea merka-

tuan ez daudenak halako taula motatan, baina egitura osoari dagokionez, aldaketak egingo genituzke etorkizunari begira. Bi hilabete egingandako lan bat da. Denboraz justu ibili gara, eta taula aurkezterakoan ez genuen guztiz bukatua. Badaude detaile batzuk hobetu nahiko genituzkeenak».

ZURRIOLAN PROBATU DUTE

Sortutako surf foila probatu dute. «Egun bat hartu genuen talde guztiek, eta denok joan ginen Zurriolara. Han, banaka probatzen joan ginen eta ikusi genuen prototipoak funtzionatzen zuela, baina ez gara adituak surf foilean. Gu noizean behin gerturatzen gara surfera, baina beste taula batekin. Foila berria da, jende askok ez du eza gutzen. Beste kirol mota bat da, pixka bat zailagoa, eta noizbait benetan badakien norbaitekin probatu nahiko genuke. Zurriolan egon ginenean jendea galdetzera etorri zitzaigun ea zer zen taula hori eta nola funtzionatzen zuen; ez zekiten zer surf diziplina zen».

Aurkezpen ekitaldia Unibertsitatean bertan izan zen, Galarretan. Goizeko zortzietarako han zeuden, standa presatzen, bideo eta posterrekin. «Lehen-

Zurriola hondartzan probatu zuten surf foila, eta ongi funtzionatzen duela egiaztatu zuten.
MU



dabiziko fasean, irakasleen epaimahai bat pasatu zen, horiek aukeratu zituzten finalistak. Batxilergoko ikasleak ere etorri ziren proiektua ikusteko eta azalpenak jasotzeko. Finalista aukeratu gintuztenean, bigarren fasera igaro ginen, eta hor, enpresen beste epaimahai bati esplikatu genion proiektua. Aretoan egin zen sari banaketa. Bertan, errekonozimendua jaso genuen. Gradu berri honi emandako bultzada txiki bat ere bada, jendea erakartzeko».

ERREKONOZITZEAREN GARRANTZIA

Gazte hauek 20-21 urte dauzkate, eta orain arte «papelean» ikasi dute. Halako proiektuei esker, «benetan errealitatea ikustea» lortzen dute, «arbelekoa ez baita berdin ikasten praktikan jartzean, sortuz ikasten da». «Asko ikasi dugu. Halako taula bat egiteko gai izatea ondo dago. Gure artean hitz egin dugu eta bat gatz denok: bi hilabeteko proiektu honetan askoz gehiago ikasi dugu klasean eserita sei hilabetez baino».

Ederra izan da errekonozituak sentitzea ere. «Indarra ematen dizu etorkizunean gizartean aldaketak egiteko. 'Semi ingeniari' bezala, sekulako ohorea da», diote irribarrez.

Beren ikasgela txikia da, 15 lagun dira, eta ongi konponzen dira. «Horrelako proiektu bat ondo ateratzeko gakoa da hori, produktua gustatzearekin batera. Ordu pila eman ditugu: tailerrean, simulazioak egiten, asko irakurtzen, informazioz elikatzeko. Beharrezkoa da, eta gustura ibili gara. Punturik garrantzitsuena egunero irribarre batekin etortzea eta disfrutatzea izan da. Ibilbidea izan da politena», baieztatu dute.

PATINETE ELEKTRIKO BAT, 25 KILOMETRO ORDUKO ABIADURA ETA 80 ORDUKO AUTONOMIAREKIN

Unai Agueda, Ibai Etxebeste, Adei Garmendia, Alatz Gordobil eta Aimar Tome Energiaren ingeniartzako graduako hirugarren maila egiten ari dira. Patinete elektriko baten garapen eta prototipoarekin hirugarren saria (300 euro) irabazi dute. Potentzia-elektronikaren atala garatu, eta bateriaren eta karga-estazioaren dimentsioa egin dute. Ondorioz, patinete elektrifikatu eta guztiz kontrolatu bat lortu dute, 25 kilometro orduko abiadura hartzen duena eta 80 orduko autonomiako bateria duena.

Hala azaldu dute egitasmoaren sorrera Ibaik eta Adeik: «Hiri handietan kutsadura nabaria dela ikusita, pentsatu genuen mugikortasun elektrikoa egokia litzatekeela soluzio bezala. Patinetea erraza da toki batetik bestera eramateko, eta ez da oso garestia. Patinete

motordun bat hartu, diesela, eta elektrifikatu, birziklatu egin dugu, jasangarria izateko. Litziozko bateria eta motorra elektronikako plaken bidez konektatzea, dena kontrolatzea eta bateratzea izan da erronkarik handiena».

Gustura daude egindako lanarekin. Beste taldeetako kide batzuek ere probatu dute patinetea, eta karrerak eta guzti egin dituzte. «Asko nabaritzen da hasierako bulkadan azelerazio asko daukala. Ikasleren bat edo beste erori da, istripu pare bat izan ditugu», aitortu dute.

«Segurtasun minimo batekin nahiko segurua da, baina abiadura handiarekin ez», argitu dute Ibaik eta Adeik. 25 kilometro orduko abiaduran ibiltzeko moduko patinetea diseinatu dute, 80 kilometroko autonomia duen bateria batekin.

Patinete prototipo honen jarraipenaz galdetuta, hala erantzun digute: «Hau gehienbat ikasteko prozesua izan zen, eta jada bertan behera utzi dugu proiektua. Ez dugu denbora gehiegi, dualean ari gara, ikasteaz aparte, arratsaldeetan lan egiten dugu».

PBL Egunera lau taldekide joan ziren. «Ez genuen irabazteko esperantza

Unai Agueda,
Ibai Etxebeste,
Adei Garmendia,
Alatz Gordobil
eta Aimar Tome,
diseinatu duten
patinete elektrikoarekin.
MU



askorik, baina aurkezpena ondo joan zen, jende asko etorri zen guregana, eta enteratu ginenenean finalista ginela, asko poztu ginen. Gero, berriz eman genituen azalpenak epaimahaiaren aurrean, eta hirugarren saria eskuratzeak asko bete gintuen. Zortzi aste-lan bat izan da, eta epaimahaiak lan ona dela esatea poz handia da».

Gaztetatik Unibertsitatean benetako arazoei erantzutea asko gustatzen zaie. «Teoriko-ki ikasitako gauzak errealitatean zuzen aplikatzea sekulako motibazioa da. Klasean emandako teoria denborarekin galdu egiten da, ez duzu guztiz barneratzen, eta handik hilabete batzuetara ez duzu gogoratzen. Ordea, goizean ikasi eta arratsaldean lan eginez, orduan bai barneratzen dituzu edukiak. Zorte hori dugu, lanean ikasitako gauza batzuk praktikan jartzen ditugulako, gehienbat proiektuak».

Unibertsitatean ikerketa talde batean dabilta, bateria arloan Ibai eta elektronikan Adei. «Oso gustura. Denbora libre askorik ez dugu, baina merezi du. Askok ikasten dugu lanean, dirulaguntza bat ere jasotzen dugu, eta esperientzia lortzeko aukera ona da».

JOATEA, ETA GERO ITZULTZEA

Kanpora joan nahiko lukete ikasketekin jarraitzea. «Joan, baina gero itzuli, lana hemen, Gipuzkoa inguruan egiteko». Zorionez, laugarren mailan biek aukera izanen dugu ateratzeko: Adeik Austriara bidaiatuko du eta Ibaik, aldiz, Poloniara.

Orain, udaberriko oporretatik bueltan, azterketak bukatu eta eoliko bat sortzeari ekingo diote, ekainera arte hori izanen da beren proiektua.



BATZ KOOPERATIBARENTZAT BALAZTA-SISTEMA BERRIRO DISEINATU ETA HOBETU DUTE

Batz balazta-sistemarekin laugarren saria (200 euro) eskuratu dute Unai Bengoetxea, Xabier Gallo, Jon Goti, Iñigo Pagaegi eta Maren Toledanok. Lau talde finalistetan gazteena da haiena, Ingeniaritza mekanikoko graduako bigarren mailako ikasleak baitira.

Batz kooperatibak Ameriketako Estatu Batuetan merkaturatzen duten balazta sistema bat berriro diseinatzea eta optimizatzea proposatu zien. Enpresak hobetu nahi zituen parametro batzuk zehaztu zituen, eta ikasle-taldeak horretan lan egin du. Materialak aztertu eta hautatu dituzte, trokela diseinatu dute pieza batzuk fabrikatzeko, eta merkaturatzea ere aztertu dute, ahalik eta etekinik handiena ateratzea buruan izanik.

«Batzek pedal bat zeukan altueraren arabera egokitu zitekeena. Enpresara joan ginen, eta diseinua hobetzeko es-

katu ziguten. Ratio bat lortu behar zen, pedalak 150 milimetro atzera eta aurrera egitea eskatzen zuten, eta gu 139 milimetrotara iritsi ginen. Ez da erraza», kontatu digu Unai.

«Enpresan diseinua, plano bat ikusi genuen, eta hortik abiatu ginen. Materiala hautatzeko prozesu bat egin genuen, eta gero, pedala fabrikatzean, merkatu analisi bat, etekinak optimizatzeako. Gainera, pieza bat guk fabrikatu genuen trokel progresibo baten bidez».

«Tarte murrizta izan dugu, hilabete eta erdi. Denbora gehiagorekin hobeto egingo genuke, baina eduki dugun denboran egin dugunarekin gustura geratu gara».

NORBERARENA ERAKUTSI ETA BERTZEENA IKUSI

Ekitaldia ere «nahiko ondo» joan zen. «Jendeari esplikatzeko guretzat ere ona izan zen. Beste proiektuak ikustea ere bai, konparatzeko. Unibertsitatean ez dago Mekanika bakarrik, eta beste proiektu eta ingeniariak batzuk ikustea ondo egon zen».

«29 taldetik laugarren gelditzea ez zen erraza, eta lortu genuen», adierazi du Unai, kontent. Oraindik azterketak dituzte, baina aterako dute ospatzeko tarte, seguru.

Ikasle hauentzat, proiektuak ikasteak «markatzen du diferentzia bat. Haurrak ginenetik Unibertsitate arte mahai batean jarri eta irakasle batek erakutsi digu, eta hori aldatzea ez dago txarto, lanean ez delako hala izango eta guk atera beharko ditugulako aurrera gauzak gure kasa. Metodo honekin hori praktikatzea oso ondo dago».

Taldea lan egitea ere interesgarria iruditzen zaie, «ikus-puntu ezberdinak daudelako eta horrekin ikasten duzula gauza bat inoiz ere egin ez duzuna». Nahiko ondo moldatu dira taldean, baikoitzak bere lana egiten zuen, eta gero, ikuspegi oso bat edukitzeko partekatu egiten zuten.

Bigarren mailan dago oraindik, baina azken kurtsoan atzerrira joatea gustatuko litzaioke Unairi. «Gradua bukatzean masterra egin eta ostean lan mundura sartu nahiko nuke, diseinatzea», kontatu digu.

Ez dakit zein unetan

Itzea URKIZU ARSUAGA

Ez dakit zein unetan iruditu zaidan ideia ona egoera honetan etxetik ezkaratzerako atea zeharkatzea eta igogailuan sartzea. Bai, igogailutik ari naiz berriz ere, eta behera noa, berriz ere; oraingoan bi haurrekin. Tira, seme zaharrena ez da zehazki haur bat: oraintxe bertan, gehiago da garrasi bat hanka eta besoekin, amorrazio ibiltari bat, ogro txiki bat. Aldamenean du anaia gaztea, begiak ezin zabalago, bere oihuei begira. Eta gero ni, neure buruari esanez heldua ni naizela, kontrola nirea dela; hartzeko arnasa, berak ezin duela frustrazio hori kudeatu; kaleko haize freskoarekin baretuko zaizkiola estres-hormona denak, kolpean.

Pentsamendu horietan kopetako izerdi tantei puzka nabilela, espero

baino lehenago gelditu da igogailua: atea zabaldu, eta hirugarreneko bizilagun gazteak pare-parean, "Mona Lisa"-rena izan zitekeen erdi-irribarre batekin, guk antzezten dugun koadroari begira. Ez dugu hitzik trukatu, baina, denok ulertu dugu ez zegokiela kabinan sartzen saiatzea ere. Bagoaz behera, eta, zerogarrenean, lurrean, kaleko haizea arnastetik gertuen dagoen pisuan, adineko emakume bat zain. Kasketa ikusi, eta ez zaio ezer hoberik otu, semeari «ez zaitetz haserretu» gazteleraz esatea baino.

Zenbat aldiz entzun beharko ote du esaldi hori bera, intonazio, hitz-hurrenkera eta metaforatan kamuflatuta? Mantra bat da, nola haurrentzat, hala helduontzat. Ez zaitetz haserretu, ez

apurtu ordena soziala, ez molestatu jende estandarrari, zeren, haserretzen bazara, ezkaratetik kalera irten, eta terrazan dauden guztiek begiratuko diote zure negarrari, zure ezinegonari, zure gardentasun xaloari.

Mundu honek hala maite baikaitu haurrak eta emakumeok: politikak eta isilik. Eta, argazki-perfektu-mutu hori dantzarazten hasten garenero, zerbait gogorarazten digu zein den bizitzan tokatu zaigun tokia: bazterra, txokoa, ertza. Eta, hala, normalak iruditu behar zaizkigu haurren presentzia onartzen ez duten ezkontza-ospakizunetarako gonbidapenak, edo 'Adults only' hotelak. Ez dakit zein unetan hasi den arau bilakatzen norberari enbarazu egiten dion oro. •

Izenarekin barrezka

Miren Azkarate. Hori da nire izena eta nire lehen abizena. Baina ez da nirea bakarrik. Badira beste batzuk ere izen-abizen horiekin, eta horien artean jende ospetsua dago. Ez da nire izenarekin soilik gertatzen, ziur baduzuela norbait inguruan...

Txikitatik entzun behar izan dut «Ui, Euskaltzaindiakoa bezala» edo pixka bat aurrerago «ño, PNVkoa bezala!». Eta beti, beti, beti irri batekin, askotan ez dudalarik jakin ongi identifikatzen zer esan nahi zidaten zehazki.

Abesti bat ere bada nire izen-abizenak behin eta berriz aipatzen dituen, eta gainera maite nautela dioena, nahiz eta bestearen omenez den. Ni espetxean nintzen eta halaxe esan zidan nire anaiak: «Abesti bat egin dizute eta auzoko tabernetan denek zu maite zaituzte!». Ezin nuenez bertako tabernetan egon, lehen aldiz osorik entzun nuen eguna ez dut sekula ahaztuko: Soto del Realeko gure moduluan nire kide guztiek abestu zidaten espetxez aldatzen ninduten egunean.


Azken gertakaria nire izen-abizenekin duela egun batzuk pasa zitzaidan. Kaze-

tari batek haien komunikabidean mahai-inguru batean parte hartzeko gonbita luzatu zidan. Nik ezezkoa erantzun nion ordu eta egun hartan ezin nuelako. Ordu erdira beste email bat, beste gonbidapen batekin, hauteskunde gauean hizlari moduan aritzeko. Ezezkoa hau ere. Handik egun batzuetara beste proposamen bat, kontseilari ohiekin mahai-inguru bat egin nahi zutela. Kar kar! Ez zuen inongo momentutan nire presentzia nahi, PNVkoarena nahi zuen! Kazetari horri: milesker eguna alaitzeagatik! •

**Miren AZKARATE
BADIOLA**

LUR AZPIKO ABENTURAK

AUPA ATHLETIC!



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

«BIRZIBILIZAZIOA»

Esperantzarako sei argi-printza utzi ditu Fernando Valladares ekologoak

📁 **INGURUMENA** / Asier Aiestaran

Fernando Valladares zientzialari argentinarra Euskal Herrian izan da orain gutxi bere azken liburua aurkezten. «Birzibilizazioa: erronkak, zangotrabak eta mundua konpontzeko motibazioak» du izenburua, eta egileak aldaketa klimatikoari aurre egiteko beharraz hausnartzen du.

Valladares Biologian doktoorea da, aldaketa klimatikoan espezializatutako ekologoa eta CSICeko ikertzailea Natur Zientzien Museo Nazionalean (MNCN-CSIC). Urte asko daramatza hitzaldiak ematen aldaketa klimatikoaren arriskuez ohartarazteko, eta egoera oso larria dela argi uzten duen arren, azken lan honetan esperantzarako argi-printza txiki batzuk aipatzen ditu.

Bere ustez, egungo egoera irauli eta «zibilizazio aldaketa bat posible egin dezaketen zazpi aktore garrantzitsuenetatik sei aktibatuta daude». Baieztapen eztabaidagarria da, polemikoa agian, baina hain zuzen ere eztabaida mahai gainean jarri eta interpelatutako sektoreak zirikatzen lagundu dezakeelako, lerro hauek eskaintzea erabaki dugu:

1. MUNDU AKADEMIKOA

Eztabaida gutxien atal honetan dago. Zientzialariek urte asko daramatzate ikerketak egiten eta agerikoa den aldaketa klimatikoaren arriskuez ohartarazten. «Ikusten nauzue ni, 30 urte daramatzat hara eta hona honi buruz hitz egiten, jendeari gertatzen ari dena kontatzen. Beste 30 urtez jarraitu behar badut jarraituko dut, baina denbora agortzen ari zaigu. Dokumentalak egin dira, hortik komunikabideetako mezu urgenteagoetara iga-

ro gara, indarkeriarik gabeko desobedientzia ekintzak ikusten ari gara... Gauza desberdinak probatu beharko dira. Ez dakit zein den bide egokiena baina zerbait egin behar da, atzerapen handiarekin goaz».

Zientzialarien eta mundu akademikoaren aktibazioaz mila adibide jar litezke, baina Valladaresek iazko urrian 161 herrialde desberdinetako 15.000 zientzialarik sinatutako manifestua aipatu zuen.

netan aipatzen direnak jendearengana hel daitezten».

«Azken txostenean, adibidez, bi elementu interesgarri jartzen ditu NBek mahai gainean. Batetik, ingurumen-kalteak sortzen dituzten enpresek ez dutela horri aurre egiteko tokatuko litzaieken dirurik jartzen. Eta bestetik, ez dela diru gehiago jartzea besterik gabe, baizik eta nork jarri

2. NAZIO BATUEN ERAKUNDEA

Agintarien jarrera oso epela eta jokabidea oso ahula dela salatu arren, Valladaresek Nazio Batuen Erakundeak egin-dako zenbait adierazpen baliolan jarri nahi izan zituen.

«Nazio Batuek zientzialariek diotenari jarraitzen diote, eta erabakiak horren arabera hartzen dituzte. Ez zientzia bakarrik kontuan hartuz, baina pisu handia duela ezin da ukatu. Hori ez da harrizkoa. Agian arreta gehiago ematen du Antonio Guterres idazkari nagusi berriaren hitz egiteko estiloak. Bere narratibak hotzikarak sortzen ditu. Zientzian oinarritutako argudioak aipatzen ditu, baina modu oso gordinean. Planeta «irakiten» dagoela eta antzekoak aipatzen ditu. Lengoaia hori probokatzeko erabiltzen du, bere mezuak entzun daitezten, txoste-

behar duen diru hori. Petrolio-ontzien kasua, adibidez. Ikerketa batek zihoen azken 20 urteetan petrolio-ontziek sortu dituzten kalte guztiak ordainduta ere, 20 bilioi dolarreko etekinak izango lituzketela. Alegia, marjina badute».

3. DIRUDUNAK

Seguruena hemen hasten dira argumentu probokatzailerak. Valladaresen esanetan, «dirudun asko ere aktibatuta daude», eta hori oinarritzeko, 2023ko irailean dirudun talde batek G20ari idatzitako gutuna erabiltzen du. «Bi gauza eskatzen zizkieten agintariei, oso konkretuak eta nahiko erradikalak. Batetik, beraiei, aberatsei, zergak igotzeko, eta bestetik, zerga-ihesa borrokatzeko. Badakizue bi zerga-ihes mota daudela: legala eta ilega-

Fernando Valladares
biologoak Zarauzko Modelo
aretoan eman zuen
hitzaldiko une bat. Gero,
Tolosan ere izan zen.
ZARAUTZ-ON



la. Dirudunak dirudunak dira bi moduak erabiltzen dituztelako. Ez dakit zeinetaz ari ziren, baina hitza hartu behar zaie», bota zuen.

«Ez dut uste pertsona bereziki jatorrak direlako edo giza-terriaren etorkizunaz kezkatuta daudelako denik, baina uste dut une honetan ontzian arraunlariak batzeko gaudela, eta arraunlari horiek inbertsiorako ahalmena badute, ongietorriak dira».

4. ELIZA KATOLIKOA

«Unibertsitatean nire ikasleei ariketa bat proposatu ohi diet. Esaldi eta testu batzuk erakusten dizkiet eta Francisco Aita Santuak edo Greta Thunberg-ek esan dituen asmatu behar dute. Ez dute jakiten zer erantzun», abiatu zuen zientzialariak bere argumentua.

«Aita Santuak atera zuen Laudato Si lanaren lehen erdia aldaketa klimatikoari buruzko tratatu bat da. Erabatekoa, zientzia oinarri duena», dio eliza katolikoari buruz

«Frantziako patronalak, inkesta batean, horren itxura txarra duen ‘desazkundearen’ inguruko iritzia galdetu zien herritarrei, eta harrিতa geratu zen %67 alde agertu zelako»

«Duela urte batzuk Aita Santuak atera zuen Laudato Si lanaren lehen erdia aldaketa klimatikoari buruzko tratatu bat da. Erabatekoa, zientzia oinarri duena. Bigarren erdian elizaren kontuak aipatzen ziren gehiago, ados. Iazko irail-urrian atera zuen aholku apostolikoan tonua ere jada aldatu egin zuen, eta zuzenean fededunei ekintzarako deia egiten zien. ‘Egin egin behar da, ez ulertu bakarrik’».

Valladaresek onartzen du eliza barruan badaudela sektoreak, «batez ere sektore ekonomiko jakin batzuekin harremana dutenak», ez dutenak begi onez ikusten jarrera hau. Baina uste du «birzibilizazio» horretan aktore garrantzitsua izan daitekeela. «Munduan 1.500 miloi katoliko daudela uste da gutxi gorabehera. Praktikanteak erdia direla dioen batezbestekoa aplikatuta ere, jende kopuru handia da. Guztiek beraien lider espiritualak dioena jarraituko balute, asko genuke irabazita».

5. SEKTORE PRIBATUA

Puntu honek ere asaldura sor dezake, baina Valladaresek iazko urrian sektore pribatuko 131 firma ezagunek, tartean Nestle edo Volvo, COP28 biltzarrerara bidalitako gutuna ekarri du gogora, deskarbonizazio prozesua azkartzeko akordio bat eskatuz.



Valladaresek argi-printza batzuk ere utzi nahi izan zituen. ZARAUTZ-ON

«Marka horiek diote beren produkzio prozesuan aldaketa klimatikoaren eraginak pairatzen ari direla, eta ulertzen dute gaur egungo norabidea ez dela jasangarria. Beraz, sektore pribatuan ere aurki daitezke aliatuak borroka honetan».

6. BIZTANLERIA

«Zalantzarik gabe, esperantza gehien pizten duen elementua biztanleria da», esanez amaitu du ekologoak bere zerrenda. Eta berak, pertsonalki, Aldaketa Klimatikorako Espainiako Batzar Herrikoian izandako esperientzia ipini zuen horren adibide. «Sekulako zentzu on ariketa izan zen. Adituok informazioa eman behar genuen, iritzirik eman gabe, eta galderaren bat eginez gero, haiei erantzun. Egindako lan horretatik

166 proposamen atera ziren, erabat zentzuzkoak. Eta hori inspirazio iturri bikaina da».

«Oso kontzeptu baliagarriak jartzen ziren behin eta berriz mahai gainean. Nahikotasun ekonomiko, adibidez. Ekonomiak beharizanak betetzeko punturaino iritsi behar duela, eta kito. Legedia behar dugula aberastasun ekonomiko mugatzeko. Frantziako patronalak, inkesta batean, horren itxura txarra duen ‘desazkundearen’ inguruko iritzia galdetu zien herritarrei, eta harrিতa geratu zen %67 alde agertu zelako, gutxiago produzitu eta kontsumitzearen alde. Logikoa da, etorriko den zerbait da. Kontua da modu arrazionalan eta planifikatuan egin dezakegula, edo kolpetik etortzeko zain egon».



Pello ALDAZ IRIARTE

EHUren Psikologia Fakultateko irakasle eta ikertzailea



Haurren garapen-arazoak: Esku-hartze programen onurak

Haurren garapen egokia ezinbestekoa da haien ongizaterako, hau da, harreman osasungarriak sortzeko, erronkei eraginkortasunez aurre egiteko eta erabakiak hartzeko, besteak beste. Bizitzako lehen urteetan, hezkuntza fisiko, emozional, kognitibo eta sozialerako oinarriak ezartzen dira, eta, kasu batzuetan, haurrek zailtasunak izaten dituzte. Horregatik, garrantzitsua da zailtasun horiek identifikatzea, ahalik eta laguntza eraginkorrena eman ahal izateko. Zenbaitetan, beharrezko laguntza ematen ez bada, osasun mentaleko arazoak, ikasteko zailtasunak edo portaera negatiboak sor daitezke eta garapen prozesua oztopatu daiteke.

Lan-oroimena garapen prozesua aurrera eramateko ezinbestekoa dugun sistema kognitiboa da. Informazioa modu aktiboan prozesatzea eta manipulatzeko ahalbidetzen digu, denbora-tarte laburrean. Sistema horren bidez, arreta modu iraunkorrean mantendu, zeregin konplexuak egin edota elementu desberdinak aldi berean prozesatu ditzakegu, besteak beste. Batzuetan, Arreta Gabezia eta Hiperaktibitatearen

Nahasmendua duten haurrengan, kasu, sistema hori kaltetuta egoten da eta horrek arazoak sor ditzake egunerokotasunean.

Horregatik, nahasmendu hori adin txikiko haurretan detektatzeak duen garrantziaz mintzo dira adituak. Zenbat eta lehenago detektatu, orduan eta lehenago egingo dira esku-hartzeak, eta horrekin, haurraren garapen prozesua hobetuko da. Esku hartzeko garaian, lan-oroimenaren funtzionamendu okerra konpentsatzeko estrategiak erakutsi ohi zaizkie haurrei: antolaketa trebetasunak, denboraren kudeaketa edo ikasteko estrategiak. Kasu batzuetan, gainera, arreta mantentzen laguntzen duten sendagaiak erabiltzen dira, haurraren errendimendua eguneroko jardueretan hobetzeko.

Ildo horretatik, Arreta Gabezia eta Hiperaktibitatearen Nahasmenduak sortzen dituen arazoaren kausara iritsi nahi dute ikerlariak, bai eta lan-oroimenaren errendimendua hobetzera ere.

Horretarako, lan-oroimena lantzeko entrenamendu programak diseinatu hasi dira, eta emaitzak kontuan hartzekoak izaten ari dira. Tankera honetako entrenamendu programak eguneroko jardueren errendimendua hobetzeko baliagarriak dira, egindako ikerketen arabera. Horregatik, garrantzitsua da norabide horretan ikertzea, onuragarria izan baitaiteke entrenamendu programak hobetzeko eta eraginkorrak izateko ere.

Hala ere, Arreta Gabezia eta Hiperaktibitatearen Nahasmendua garapen prozesuan aldatuz doazen nahasmenduak dira, eta, horrek adinaren arabera behar desberdinak egon daitezkeela iradokitzen du. Gainera, norbanakoen artean behar desberdinak egon ohi dira adin tarte berean ere. Horregatik, esku-hartzeak edota entrenamendu programak diseinatzeko garaian, oso garrantzitsua da haurraren beharretara moldatzea, eremu akademikoan bereziki.

Beraz, Arreta Gabezia eta Hiperaktibitatearen Nahasmendua pairatzen duten pertsonen –eta bereziki haurren– beharrak detektatuz, esku-hartze mota desberdinak erabiltzea onuragarria izan daiteke pertsona horien ongizaterako eta garapen prozesu osasuntsua bermatzeko. •



Bizitzako lehen urteetan osasun fisikoaren eta emozionalaren oinarriak finkatzen dira. GETTY IMAGES

{ koaderno } **Xabier IZAGA**

Zabarkeria gutxi balitz bezala, gaitzuste?

Vitoria exige 113.000 euros a los gestores de Gasteiz Antzokia”. Nik ez; beraz, ez da Gasteiz osoa. Lerroburuak deabruak kargatzen dituela esan ohi da, baina hau ez da kasua; izan ere, ez dut uste deabrua Gasteizko euskaltzaleen topagunearen aurka dagoenik. Martxo amaierako albistea da, eta eskatzailea, Gasteizko Udala. A, bai, Gasteizko Udalak gasteiztarrak ordezkatzeko ditu eta abar, baina kasu honetan behintzat, inondik ere ez.

Duela hilabetetsu Gasteizko euskalgintzako hainbat eragilek, beren kezka agertuta, Izaskun Arrue Kulturgunea zabaltzeko eskatu zuten. Hurrengo astean, berriz, arestiko lerroburu horren bidez jakin genuen Udalak ia 113.000 euro eskatzen dizkiola Lazarraga Kultur Elkarteari, eta hurrengo egunean izan genuen elkarte horren kezka eta harriduraren berri.

2023ko martxoaren 28an Gasteizko Udalaren prentsa ohar batek zioenez, «Gasteizko Udalak iaz jarri zuen abian Gasteiz Antzokia-Euskararen Etxea proiektua garatuko duen irabazi-asmorik gabeko erakunde bat aukeratzeko deialdi publikoa. (...) proiektu onena La-

zarraga elkarteak aurkeztutakoa izan zen. Gaur goizean berretsi du Tokiko Gobernu Batzordeak erabakia, eta aipatutako elkartearekin hitzarmena sinatzea onartu du». Ohar berak orduko alkatearen adierazpena jaso zuen: «Ilusio handia sortzen digun azpiegitura (...) Izaskun Arrue Kulturgunea euskarazko edukiekin gozatu ahal izateko tokia eta hizkuntza-ohitura berriak sortzeko gunea izatea nahi dugu, baina baita gasteiztar guztiak bilduko dituen topagunea ere».

Apirilaren 5ean, Gasteizko Udalak eta Lazarraga Kultur Elkarteak hitzarmena sinatu zuten.

Denborak aurrera egin zuen, ohi duenez, baina Lazarraga Elkarteak ez zen besoak uztartuta geratu.

2023ko irailean “Alea” aldizkariak elkarteko kide bi el-karrizketatu zituen. «Argi berdearen zain gaude; programazio guztia antolatuta dago», zioten elkarteko presidentek eta kulturguneko programazio ardura-dunak, eta azpimarratu zuten azpiegitura horren irekieraren atzerapenak proiektuari «kalte handia» egi-ten ziola. Artean ez zekiten norainokoa.

Gasteiz Antzokia eta euskararen etxea hartu behar zituen Ruiz de Bergara jauregian ez da jarduerarik izan, eta ez da harritzekoa, oraindik itxita dago eta. Baina hura kudeatzeko aukeratutako elkarteak xehe-xehe azaldu ditu egin dituen gastuak, «Gasteizko Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako eta izenpetutako Plan Operatiboak ezartzen zuenaren arabera, eta jarduerak egin ezin badira, Izaskun Arrue Kulturgunea

Uztailean urte bi izango dira euskararen etxerik gabe gaudela, euskal kultura, euskararen kultura, euskarazko kultura ardatz duen azpiegituraren zain, eta orain, proiektu osoa «hilzorian»

prest ez zegoelako izan da». Hain zuzen, programatuta baina egin gabe geratu ziren jarduera horiei dagoen dirua itzultzeko prest zeukaten: 50.487,48 euro.

Uztailean urte bi izango dira euskararen etxerik gabe gaudela, euskal kultura, euskararen kultura, euskarazko kultura ardatz duen azpiegituraren zain, eta proiektu osoa «hilzorian».

“Gasteizko Izaskun Arrue Kulturgunea behingoz zabaldu dezala eskatu dio Tokiko Gobernu Batzarrari” lerroburua beharbada ez da oso zuzena, badakit Gasteiz osoak ez duela eskatzen, baina nik bai, eta bide batez, gobernu batzar horrek bere zabarkeria aitortu dezala eta oker egin duena zuzendu dezala. •

ARTEFAKTUA ◉

ONDITZ GOÑI SAGASTUME HAUR MOTXILADUNA

Duela 24 urte, 2000. urteko apirilaren 11n, Donostiako alkate Odon Elorzak, Euskal Herriko bost espetxeetako zuzendariak, frantziar eta espainiar gobernuburuek, Nafarroako presidente Miguel Sanzek eta La-kuako Gobernuako kideek eskutitz eta tarta bana jaso zuten. «Onditz Euskal Irrira» plataformarena zen oparia, pastel gozoa eta eskutitz gazixeagoa, agintari horiei gogorarazteko Onditzek aurki urtea beteko zuela Euskal Herritik ehunka kilometrora, Dueñasko kartzelan, bertan bizi baitzen, Maitane Sagastume amarekin.

Laster beteko ditu Onditz Goñi Sagastumek 25 urte. Bera



«Askotan pentsatu izan dut ni pertsona desberdina izango nintzatekeela ama gertuago egon balitz haurra nintzenean»

📁 **JENDARTEA** / Amagoia MUJIKA TELLERIA

«Onditz Euskal Irrira» plataforma sortu zuten hainbat euskal sortzaile eta artistak duela 25 urte. Euskal preso politikoen sakabanaketak haien seme-alaben bizitzetan sortzen duen injustizia mahai gainean jarri zuen ekimenak. Onditz Goñi Sagastume jaioberria zen orduan, eta bere egoerak bistaratu zuen lehen aldiz haur motxiladunen errealitatea.

izan zen lehen haur motxiladuna, dispertsioaren latza sufritu behar izan zuen lehenengotarikoa.

«Onditz Euskal Irrira» ekimena izan zen lehenengoz haur motxiladunen gaia mahai gainean jarri zuena. Ez da akordatzeko bere lehen urteez, baina etxean kontatu diotenetik eta inguruan jaso duenetik osatu du puzzlea. «Ama Dueñasko espetxean zegoen preso. Dagoeneko zazpi-zortzi urte zermatzen kartzelan. Ni jaiotako baino bi aste lehenago ekarri zuten Martutenera, uzkurduerkin hasi zelako. Donostiako ospitalean erditu nahi zuen amak. Jaiotako eta bizpahiru astera eramane gintuzten ama eta biok Dueñasko espetxera. Martutenen ez zegoen amentzako modulurik».





Gauza jakina zen Onditz jai eta berehala eraman beharko zutela kartzela urrunen batera, Martutenen ez zegoelako amentzat eta umeentzat presatutako modulurik. Egoera horren aurrean, Euskal Herriko hainbat kulturgile elkartu ziren egoeraren krudela salatzeko: Pirritx, Porrotx eta Takolo; Kakax, Kokox eta Kirriki; Goloka eta Kukubiltxoko ki-deak; Txan Magoa; Sebastopoloko titiriteroak; Inkieta, Txorropio, Pantxi eta Pantxo, eta Tanttaka taldeko lagunak, besteak beste. Onditzek Euskal Herrian jaiotzeko eta bizitzeko eskubidea zuela aldarrikatu zuten. Eta berak bezala bere amak, aitak eta euskal preso politiko guztiek. Irudimenez

eraiki zuten aldarria; kalejira erraldoia eta koloretsua egin zuten Antiguatik Boulevardera, Manolo Urbietak abesti bat egin zuen, manifestua han eta hemen zabaldu zuten... Gainera, denboran eutsi egin zioten aldarrikapenari. Gabonetan Martutenera joan zen sortzai-

«Nik ez nituen gauza asko ulertzen. Ama han barruan zegoen eta bera ikustekotan urrutira joan behar nuen. Gaizki pasatzen nuen bidaietan, oso luzeak ziren, beroa...»

«Noiz arte egon behar zuen amak kartzelan? Hori galdetzen hasi nintzen, baina inork ez zidan erantzunik ematen, ez zekitelako. Sentsazio horrek kalte handia egiten zidan»

Alboko orrialdean, Onditz Goñi Sagastume, gaur egun eta jaiotzeko. Lerro hauen gainean, bere haurtzaroko hainbat argazki amarekin, kartzelan.
Jon URBE | FOKU FAMILIAK UTZIAK

le kuadrilla, Olentzero eta as-toa tartean, euskal presoek eta haien hurrek Olentzeroz gozatzeko eskubidea zutela ozen esateko. Udan igerileku puzgarrri bat eraman zuten kartzelaren atarira, Onditzek Kantauri itsasoaz, bere herriaz eta udaz gozatzeko eskubidea zuela gogorarazteko. Beste egun batean, amen modulua eraikitze-ko lanak hasi zituzten kartzelaren parean, "Onditz eraikuntzak" deituriko enpresarekin. Eta Onditzek urtea bete behar zuenean, tarta bat erregistratu zuten hainbat tokitan, tartean Donostiako Udalean. Garai hartan Odon Elorza zen alkatea, eta tarta aitzakia hartuta gogorazi nahi zioten donostiar batek laster

urtea beteko zuela bere etxetik oso urrun, kartzela urrun batean.

LEHEN ARGAZKIAK, DUEÑASEN

«Ez daukat lehen urte haien oroitzapenik. Kontatu dizkidatenak eta entzun ditudanak harrapatu eta itsatsi egin ditut. Urte eta erdi pasatxo nuenean atera nintzen Dueñasko kartzelatik, eta aitarekin Donostiara etorri nintzen bizitzera. Lehen hilabete haietan, bisitak genituenean, ni kartzelatik ateratzen ninduten. Nire haurtzaroko lehen argazkiak Dueñasen dira denak, amen moduluan edo herrian, aitarekin eta lagunekin. Bisitan etortzen zirenek ateratzen ninduten kalera. Hori zen nire



mundua orduan. Urte eta erdi inguru nuenean etorri nintzen Donostiara, eta Orixe ikastolan hasi nintzen. Nire lehen oroitzapenak Orixe ikastolan, kaian, Urgullen... dira, lagunekin».

Maitane Sagastumek lekualdaketa asko izan zituen Onditz Dueñastik atera eta gero. Martutenen lauzpabost urte, Zaragozako Zueran, Asturiasko Villabonan, Coruñako Curtisen... «Gogoratzen naiz Villabonako kartzela aparte zegoela, autobiadetik atera eta bihurtu asko zituen. Oihana zirudien toki batean zegoen, oso urrun nire oroitzapenean». Autoan asko zorabiatzen zen haur baten oroitzapena da. Ez dauka ahazteko zorabioaren kontra hartzen zuen botikaren zapore txarra ahoan. «Nik ez nituen gauza asko ulertzen. Ama han barruan zegoen, urrun, eta bera ikustekotan urrutira joan behar nuen, bestela ezin nuen ama ikusi. Gaizki pasatzen nuen bidaietan, oso luzeak ziren, aste-

«Gaur egun ez dut jasaten ziurgabetasuna. Denbora luzez sentitu izan dut ez neukala nire bizitzaren gaineko kontrolik, eta orain kontrol hori behar dut»

«Hasieran ez nekien nola kudeatu ama gertu edukitzea. Bizitzaren parte handi bat eman nuen ama gertu noiz izango zain-zain, eta behin ondoan nuenean, ez nekien nola egin»

buru osoa pasatzen nuen aurotoan, beroa egiten zuen...».

Bidaia txarra eta, behin kartzelara iritsita, ezlekuak diren toki horien hotza. «Kartzelak oso zaharrak iruditzen zitzaizkidan, eta zikinak. Umetatik konturatu nintzen funtzionarioen artean ere desberdintasun handiak zeudela. Batzuek kilometro mordo egin zuen haurra ikusten zuten eta enpatia sentitzen zuten. Beste batzuek, izen euskalduna nuela ikusita, gaizki tratatzen ninduten hasieratik zuzenean. Oso txikitatik sumatu nuen desberdintasun hori. Eta ondo go-

goan daukat nire bizitzan ikusi dudak kartzelarik zikinena: Langraizko kartzela zaharra. Oso oroitzapen txarra daukat, bazirudien kartzela gainera eroriko zitzaigula».

Hala ere, urruntasuna eta zikintasuna aparte utzita, «ziurgabetasuna» zen Onditzi hartzikara handiena sortzen zion sentipena. «Nik betidanik ezagutu nuen ama kartzelan, eta barneratuta neukan han egon behar zuela. Baina, urteak pasatu ahala, pentsatzen hasi nintzen egoera horrek bukaera bat izan behar zuela. Noiz arte egon behar zuen amak kartzelan? Hori galdetzen hasi nintzen, baina inork ez zidan erantzunik ematen, ez zekitelako zer erantzun. Sentsazio horrek kalte handia egiten zidan, nik jakin egin nahi nuen ama noiz aterako zen. Itxaropen bat behar nuen, amaiera puntu bat. Tarteka entzuten nuen akaso aterako zela, zigorraren hiru laurdenak beteta zituela... baina gero ez zen ateratzen eta kolpe latza izaten

zen, bai niretzat bai amarentzat. Gero, egun batetik bestera jakin nuen ama kartzelatik aterako zela. Nik ez neukan aukera hori barneratuta, aspaldi utzi nion itxaropena izateari».

«EZ DUT JASATEN ZIURGABETASUNA»

Hori guztia kudeatu behar izan zuen Onditzek nerabe bat zela. «Ni orduan ez nintzen konturatzen, baina egoera horrek marka handia utzi dit. Gaur egun ez dut jasaten ziurgabetasuna. Lanean, une oro jakin behar dut zer egin behar dudana. 'Hori egin eta gero ikusiko dugu' esaten didatenean urduri jartzen naiz. Denbora luzez sentitu izan dut ez neukala nire bizitzaren gaineko kontrolik, eta orain kontrol hori behar dut».


Badira zortzi urte ama espetxetik atera zela. Bere bizitza modu askean egiten duen gaztea da, ez da amarekin bizi, baina badaki behar duenean hor egongo dela. «Nik ama bi asteen behin edo hilabetean behin ikusten nuen. Horretara ohituta nengo. Eguneroko

hurbiltasuna aitak eman izan dit umetatik. Hasieran ez nekien nola kudeatu ama gertu edukitzea. Bizitzaren parte handi bat eman nuen ama gertu noiz izango zain-zain, eta behin ondoan nuenean, ez nekien nola kudeatu. Hasieran ez nekien nola egin, landu egin behar izan dugu biok, baina ikasi dugu. Orain oso harreman ona daukagu, gertutasun handia. Ama oso ondo ikusten dut eta horrek poza ematen dit. Biok ikasi behar izan dugu elkarrekin egoten».

EUSKAL HERRIAREN HAURRA

«Askotan gerturatu izan zait jendea esanez, 'zuk ez nauzu ezagutzen, baina nik parte hartu nuen halako festan, halako manifestazioan, abesti bat egin nuen zuretzat...'. Oso babestuta sentitu izan naiz. Haur motxiladunen errealitatea mahai gainean jarri zen nire kasuarekin, eta sentitzen dut jendeak asko zaindu nauela. Porrotx, adibidez, beti izan dut ondoan, haurra nintzenean, eta gero. Oso maitatua eta babestua sentitu naiz jendearen aldetik. Donostiako Parte Zaharrean ere, asko zaindu naute. Adibidez, nire lagun gurasoek asko zaindu naute, bai ezker abertzalekoak zirenek eta baita beste pentsaera bat zutenek ere. Nire aitaren eta amaren semea naiz, baina askotan sentitu dut pixka bat denon haurra nintzela».

Bere ama ehunka kilometro-ra zeukan preso, eta berak ere sufritu du zigorra. «Adibidez, Alacanteko eta Malagako lagunak dauzkate orain, eta askotan azaldu diet nola preso senideak ere zigortzen dituzten, ehunka kilometroko bidaiak egitera behartuz. Nik ez nuen ezer egin eta asteburu oro bizitza jokoan jartzen nuen erre-



Maitane eta Onditz elkarrekin kalean, espetxetik kanpo. FAMILIAK UTZIA

pidean. Orduan ez nintzen konturatzen, baina gerora askotan pentsatu izan dut. Baina ez neukan beste aukerarik, ama ikusi nahi banuen bidaia luzea egin behar nuen, ez zegoen besterik».

Martuteneko amen modua 2022ko ekainean inauguratu zuten. Onditzek bere buruari askotan galdetu izan dio nolakoa izango ote litzatekeen bere bizitza ama Martuteneko kartzelan balego. «Askotan pentsatu izan dut, ama Martutenen balego, nire haurtzaroa desberdina izango litzatekeela. Bisita gehiago izango nituen, ez nituen hain bidaia luzeak egin beharko, asteburuak desberdinak lirateke, agian futboleak jokatzen jarraituko nuen denbora luzeagoan... segur aski nire bizitza oso desberdina izango litzateke eta ni pertsona desberdina izango nintzateke ama gertuago egon balitz haurra nintzenean».

Umetan faltan sumatzen zuen amak bere lagunak ezagutzea. «Nire lagunak kontuak kontatzen nizkion, baina ez zi-

tuen ezagutzen. Horrek moles-tatu egiten zidan. Nire lagunak izenak bakarrik ziren beretzat, ez zien aurpegiarik jartzen. Kartzelatik atera zenean nire lagunak ezagutzeko gogoak zuela esan zidan, eta ezagutu zituen. Poza eman zidan horrek».

Bazuen beste amets bat, beste plan bat, amarekin egin nahi zuena. «Umetatik amare-

kin Port Aventura joan nahi nuen, nire lagunak joaten ziren bezala. Beti esaten nion hori zela nire ametsa, berarekin Port Aventura joatea. Duela urte pare bat joan ginen biok eta izugarri polita izan zen. Nire amak horrelako parke bat ezagutzen zuen lehen aldia izan zen, eta ni amarekin horrelako parke batera joaten



GAUR8



ireki gure leihoa

«ITZAL(IKO) BAGINA»

Gorputza, lehia eta lotsa performatu dituzte Lokatz Loreek antzerki batean

Haurtzarotik helduarorako trantsizioaz mintzo dira Lokatz

Loreak “Itzal(iko) bagina, zeharkatzen gaituena performatzen” bertsoan oinarritutako antzerki ikuskizunean. Etopa horretan egiten dute topo hiru pertsonaiek, edo argi-illunen artean topo egin ezinean ibiltzen dira.

Norbanakotik kolektibora zabaltzen dira, gaurko sistema indibidualistari kritika egiteko asmoz, ni bertze zu bat naizelako eta zu bertze ni bat zarela, zuri esker banaizelako eta niri esker bazarelako.

Iraitz Lizarraga Gomezek (Zizurkil, 1979) zuzendu du Lan-kuk lagundutako ikuskizuna.

📁 KULTURA / Maider IANTZI GOIENETXE

Lokatz Loreek gaur arratsaldean estreinatuko dute, Berriren, «Itzal(iko) bagina» antzerki ikuskizuna. Haurtzarotik helduarora bidean, bertso munduan egin zuten topo Araitz Katarain, Izaro Bilbao eta Janire Arrizabalagak. Bertsoaz harago doazen auzi sozialei helduz, generoari, osasun mentalari edota familiari, ni-tik gu-rako bidaia proposatzen dute itzal eta argiekin jolastuz.

Aktore, zuzendari eta akrobatik arte eszenikoetako jakinduria eta diziplina arteko esperientzia luzea eman dio.

Itzalak hagitz elementu inportantea dira obran. Oihal baten giblean proiektatzen dituzte, pertsonaien barne munduaren isla gisa. Bizitzan

zeharkatu dituzten bizipen batzuk antzezten dituzte, identitatearen jiran dabilzanak: lotsa, lehia eta gorputza. Pertsonaia bakoitzak bat irudikatzen du, bere kolorearekin. Antzezlanak aitzinera egin ahala, elkar ikusten eta elkar ulertzen joanen dira.

MASKARA, ISPILUA ETA DOMINA

Izaro Bilbao Arostegiren (Mungia, 2004) pertsonaiek gorputzarekin lotutako auziak jorratzen ditu, osasun mentala, elikadura nahasmendua edota irudia. «Hiru pertsonaiek oholtzan ezagutzen dute elkar, bertsoan. Hitzak garrantzi handia du, baina gorputza ere hor dago. Horrekin arazoak ditu, eta taula gainean egoteak nola eragiten dion kontatzen du», azaldu digu.

Araitz Katarain Mugarzaren (Mallabia, 2004) pertsonaiek lotsa gorpuzten du. «Umetatik da lotsatia, eta pixkanaka lotsa elikatzen doa, maskara jartzen du, hor ezkutatzen da, eta



Araitz Katarain, lotsaren maskara margotzen, Janire Arrizabalaga (lehia) eta Izaro Bilbao (gorputza) ondoan dituela.

Unai MATEO / LORALDIA

azkenean, bere pertsona horretara mugatzen da. Gero ezin du maskararik kendu. Lotsatia da eta listo», esplikatu dio GAUR8ri sormen taldeko bigarren kideak.

Janire Arrizabalaga Munduateren (Gernika-Lumo, 2003) pertsonaia, azkenik, lehiaren irudia da. «Gero azaltzen da zergatik dagoen obsesionatua irabaztearekin. Huts egitearen beldur da, gaur egun denok bezala. Eta oso leku ilun batera heltzen da. Nahiz eta sariketa tonto bat izan, dena irabazi nahi du».

Hasieran, hiru pertsonaiak muturrera eramaten dituzte pixka bat, karikatura egin, eta gero gizaki bilakatzen saiatzen dira, lurreratzen.

Bakoitzak objektu bat dauka: Araitzek maskara, Izarok ispilua eta Janirek domina. Nola uzten dituzten kontatzen dute obran.

ERRAZ KONEKTATU

Martxoaren 22an egin zuten aurrestreinaldia Bilbon, Loraldia festibalean. Ikusle batek idatzi zien emanaldian sentitu zuela ez zegoela hain bakarrik. «Espero baino harrera hobea izan dugu. Entseguetan uste genuen jendeak une batzuetan barre egingo zuela, eta gero beste batzuetan egin zuen. Oso konektatua egon zen publikoa».

Lotsaren pertsonaiarekin erabat identifikatu naizela aipatu diedanean, ikusle bakoitzak elementu batekin pila bat identifikatzen dela baietsi dute, baina ondotik ohartzen dela antzekoak direla hirurak eta erlazonatuta daudela.

«Bakoitzak asko kontatzen du bere bizipenetatik, eta horregatik da erraza konektatzea, oso barrutik sortua delako. Gauza hauek kolektibizatzeke jarri dugu hor fokua».



SORTZE PROZESUA

Sormen prozesu guztia hiruren artean egin dute. «Obra egiteko idatzi zigutenean, gidoia egin genuen bertsoz, eta gero Iraitzekin ikusi genuen zelan oholtzaratu. Iraitzek begirada guztiz ezberdin bat eman dio. Une komikoak egon dira berarekin. Gu bertsoaren mundu txikitik gatoz, berak ez du asko ezagutzen eta guk oso

Izaro Bilbao, Janire Arrizabalaga eta Araitz Katarain bertsolariak osatzen dute Lokatz Loreak sormen taldea. LOKATZ LOREAK

barneratuta ditugun gauza batzuk –sortze oso mekanizatua, neurriak, postura– berak beste era batean ulertzen ditu. Oso aberasgarria izan da. Gure konfort eremutik asko atera gara une batzuetan».

Gustura daude emaitzarekin. «Ez genuen espero. Hasieran gure buruan ez zegoen atera dena. Ez genuen ezer irudikatu ere egiten. Zerbait be-

rria egiten duzunean, ez dakizu ondo nora helduko zaren».

GIDOIA, BERTSOZ BERTSO

«Gure barne barbaro, masail odoluste/ zure lotsek nireak ulertzen dituzte/ erru honen errudun zarenik ez uste/ ez gara gu eraiki, eraiki gaituzte».

«Zure frustrazioak iturria non du?/ Lana, haurrak, argaldu, elizan ezkondu.../ gehieenez lur zati bat ahalko duzu ondu/ ezin baita bakarka mundua konpondu».

Elkarrizketa bakarra dago hitz lauz, hagitz laburra; gainerakoa bertsoetan da. «Bertsoek gidoi funtzioa betetzen dute, ez dira bertso jarriak, elkarrizketak dira bertsoetan. Puntu batzuetan tonua aldatu dugu, zentzu gehiago emateko bertsoak performatu ditugu», azaldu dute.

Lan hau sortzeko anitz edan dute feminismotik. «Gure erreferenteak Uxue Alberdiren 'Kontrako eztarritik' liburuarren modukoak dira, eta eragina sumatuko da, seguru».

Ibil Bediren musika erabiltzen dute. Miren Amuriza izan zen, bestalde, emanaldia egitera bultzatu eta Lankun aurkeztu zituena. Ixone Asategirena da emanaldiko off ahotsa eta Haize Lekuonarena, aldiz, biolin doinua.

Erreferenteak aipatu ditugu, eta horietako batzuen testuak bildu dituzte obraren esku orrian. Galdera ugariko testua oparitu die Leire Vargas Nietok. Adibidez, «zer gertatzen da azalaren eta ehunaren artean? Zer gertatzen da gorputz baten eta ahots baten artean?»

Olatz Salvador Zalduak zailantza gehiago planteatzen ditu: «Nirea al da nire nortasuna bera? Itzali daiteke?». Nerea Ibarzabal Salegik ere egin du bere ekarpena.



«Oraindik ez zuten obra ikusia. Zertaz zihoan kontatu genien. Zertaz gabiltzan ulertzen duten pertsonak dira».

AUSARDIA HANDIZ

Izaro Bilbaori literatura, kantua, marrazkigintza eta antzerkia interesatu zaizkio txikitatik. Zortzi urtez antzerkian jarduna da. Donostiara Psikologia ikastera joan zelako utzi zuen, baina antzezlariaren aukera etorri zen berehala, hortaz, ez du utzi.

Araitz Katarain Gizarte Antropologiako ikaslea da Donostian. 11 urterekin lehen antzerki klaseak jaso zituen eta harremana mantendu du diziplina honekin. «Lotsak traba pixka bat egin dit, kosta zait, baina gero oso aberasgarria izan da, balioko dit bizitzarako. Bertsoa oso irmoa da, eta antzerkitik aberastu naiz», adierazi digu.

Janire Arrizabalaga Ikus-entzunezko gradua ikasten ari da EHUn. Diseinu grafikoko lanak ere egiten ditu eskariz. Ez du lotura handiegirik antzerkiarekin eta hau lehen aldiaren ilusioarekin hartu du.

«Janire eta Araitzengan ikusidut kristoren ausardia. Azke-

nean, nik proposatu nien: ir-tengo gara bertsoetik eta urrunago joan?», erran du Izarok.

Gaspe eta helduei zuzendutako ordubeteko antzezlana da, barruan egitekoa. «Antzokietan, guztiz ilun gera daitekeen gunen batean. Egiturak baliatzen ditugunez itzalak proiektatzeko, handitxo den leku bat behar dugu, sei metroko zabalerakoa. Halere, saiatzen gabiltza formatu txikiagoa bilatzen».

LOKATZ LOREAK

«Itzal(iko) bagina» antzerki ikuskizunak Lokatz Loreen zigilua darama. Hiru bertsolariok 2022ko udan sortu zuten sormen taldea, bertso munduan beren tokia aurkitzeko helburuarekin. Egin zuten

Zeharkatu dituzten bizipen batzuk antzeztan dituzte: lotsa, lehia eta gorputza. Pertsonaia bakoitzak bat irudikatzen du, eta antzezlanean elkar ikusten eta elkar ulertzen joanen dira

Iraitz Lizarragak begirada guztiz ezberdin bat eman dio. Une komikoak egon dira, bertsolariak barneratuta dituzten gauza batzuk berak bertze era batean ulertzen dituelako

Janire Arrizabalaga,
dominak itotzen, eta
Izaro Bilbao gorputzari
lotutako auziak
antzeztan.
Unai MATEO / LORALDIA

lehen proiektua Friki Saiok deitutako bost saioko bertso zirkuitua izan zen.

«Espazio seguruak sortzeko asmoz hasi ginen, beti ez dagoelako halako espaziorik. Antzerki honetan ere umoreak badu lekurik, baina kritikoa da. Friki Saiok ondo pasatzeko ziren. Hortik geroz. Horrela egin ginen lagun, egitasmo hori gauzatzen, eta ibilbide horri dezentze zor diogu», baloratu dute.

2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko tira komikoak egin zituzten gero, pot.eus-ekin elkarlanean, eta «Bertsolari» aldizkarian ere argitaratu dituzte lan batzuk.

«Lokatz loreak sortu genuen espazio seguruak lortzeko. Ez ginen ezagunak, eta lortu dugun espazio seguru bat, behintzat gure artean», baieztatu dute irribarre konplizez.

Haietako bakoitzak desberdin bizi izan du. Izaro: «Herri batetik nator eta han ez daukat nire adineko jenderik giro honetakoa denik. Beti kasu aparte bat izan naiz nire belaunaldian bertsoan. Hiru kasu aparte batu gara, eta ohartu gara agian jende gehiago dagoela hala

sentitzen dena. Zergatik ez dugu hitz egingo bertsoan 'Harry Potter'-i buruz guri gustatzen bazaigu? Nik bertso munduan kokatzeko beste era bat nabaritu dut. Eta antzerki emanaldiak ere badu horretatik».

Friki Saiok garrantzi handia zuten ikus-entzunezkoek. Proiektore bat jartzen zuten atzean gauzak erakusteko. Hortik zetozenez, lekua egin nahi izan diete ikus-entzunezkoen antzerkian ere, bertsoarekin harremanetan, Lokatz Loreen marka gisa. Koloreak, objektuak eta itzalak inportanteak dira, sinbologia handia dute.

LEHEN EMANALDIAK

Erran bezala, gaur estreinatuko dute obra, Berrizko kultur etxean, 19.30ean. Bertze bi emanaldi dituzte: maiatzaren 5ean Villabonan, 19.30ean Gurea Aretoan; eta maiatzaren 25ean Lezoan, 20.00etan kultur etxean.

Orain udazkenara begirako emanaldiak antolatzen ari dira. Interesa duenak Lankuren bidez kontrata ditzake, telefonoz, 675 716 472 eta 943 26 07 55 zenbakietara deituta edo marketina@lanku.eus helbidera idatzita.



Edurne LARRAZA MENDILUZE

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Pentsaera Konputazionala, Papert eta Wing-en artean

Informatika gaur egungo gizarte digitalean orokortu denez eta beste zientzia batzuetan metodo konputazionalen erabilera zabaldu denez, Pentsaera Konputazionala eskolako curriculumetan sartzeko beharra ikusi da, eta dagoeneko konpetentzia espezifiko gisa ageri da digitalizazioaz eta matematikako ikasgai ez gain, LHn Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza arloan eta DBHn Biologia eta Geologia ikasgaietan.

Pentsamendu Konputazionala terminoa asko zabaldu den arren, ez dut gustuko, eta Pentsaera Konputazionalaren alde egiten dut Euskaltzaindiaren Euskara Batuaren Eskuliburuan topatu dudana "pentsamendu/pentsamolde" izeneko sarreran oinarrituta.

Pentsaera Konputazionala osatzen duten elementuak honela sailka daitezke:

- **Prozesu mentalak:** Problema ebazteko erabilgarriak diren estrategia mentalak (pentsaera algoritmikoa; pentsaera logikoa; problemen deskonposaketa eta modularizazioa; abstrakzioa; patroiak antzematea; orokortzea).

- **Metodoak:** Informatikariek asko erabiltzen dituzten hurbilpen operatiboak (automatizazioa; datu-bilketa, -analisi eta -adierazpena; paralelizazioa; modelizazioa eta simulazioa; analisia eta ebaluazioa; programazioa).

- **Praktikak:** Makina informatikoetan oinarritutako irtenbideak aplikatzeko erabiltzen diren ohiko praktikak (esperimentazioa, iterazioa, aritzea; testatzea eta zuzentzea; bererabiltzea eta nahastea).

- **Zeharkako gaitasunak:** Informatikarien pentsaera hobetu dezaketen bizitzarako gaitasun erabilgarriak (diseinua eta sormena; komunikazioa eta kolaborazioa; hausnarketa, ikasketa, meta-hausnarketa, mundua konputazionalki ulertzea; anbiguotasuna onartzea, ekinez aritzea problema konplexuen aurrean).

Wing-en lanak eman dio zabalkundea gaiari. Bere ikuspuntutik, Pentsaera Konputazionalaren elementu batzuk beste arloetan topatu badaitezke ere, informatikan dauka oinarria eta informatikaren testuin-

gurutik abiatu behar da pentsaera hori garatzeko. Eta kontuz, informatika ez baita soilik programazioa! Esate baterako, konputagailuen funtzionamendua ulertzea garrantzitsua da aipatu diren prozesu mental, metodo, praktika eta zeharkako gaitasun horiek oinarri sendoz garatzeko. Hori kontuan izanik, ez zait egokia iruditzen pentsaera konputazionala garatu nahi den unean informatikako ikasgaia hautazkoa edo teknologiarekin partekatua izatea. Informatikak bere eremua behar du pentsaera konputazionala ongi garatzea nahi bada.

Papert izan zen lehena terminoa erabiltzen, eta bere esanetan, konputagailuen xarma kontzeptu abstraktuak ulertzeko erreferentzia bat eskaintzean datza. Kontzeptu abstraktu horiek modelizatzeko eta simulatzeko aukera ematen dute. Hori da beste arlo batzuetara eraman daitekeena, adibidez fisikan, indarren eraginak simulatu daitezke eta horretarako garatu behar den kodeak programazioa, fisika eta matematika lotzen lagundu dezake; beraz, informatikaren, eta ez digitalizazioaren, zeharkakotasunari ere garrantzia eman beharko litzaioke. •


Michael Lodi eta Simone Martiniren "Computational Thinking, Between Papert and Wing" artikuluan oinarrituta.



Informatikak bere eremua behar du pentsaera konputazionala ongi garatzea nahi bada. GETTY

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Gerardo ZARAGÜETA ZABALO | NAFARROAKO MUSEOA

ERREPUBLIKA ALDARRIKATU ZEN EGUNA, IRUÑEKO UDALETXE PLAZAN

1931ko apirilaren 13ko gauean, Errepublikaren aldarrikapenaren bezperan, manifestazio bat egin zen Iruñea erdialdean. Bertan, Errepublika goratzeaz gain, "Primo de Rivera" eta "Alfonso XIII" izenak zeramatzen kaleetako plakak erauzi zituzten. Gainera, Sanjurjoren omenezko estatua bat eraitsi zuten. Apirilaren 14ko goizaldean, Guardia Zibilak manifestarien aurka egin zuen, kontzentrazioa deseginez. Egun horretan bertan, arratsaldeko 7etan, manifestazio jendetsua egin zen eta, Zapatarri kaleko Eusko Etxetik pasatzean, bertan bildutakoak agurtu zituzten "Euskal Errepublikaren" aldeko oihuak eginez. Ibilbidean zehar, manifes-

tazioan, "Diario de Navarra" egunkariaren lokaletatik igarotzean, eta arratsaldeko "El Día" egunkariaren arabera, «...Nafarroaren aurkako egunkari diktatorialari oihuka eta txistuka hasi ziren». Artikuluak erakusten duen argazkian ikus daitekeenez, manifestazioa Udaletxe plazan amaitu zen, Errepublika aldarrikatu zen tokian, eta Mariano Anso alkatea manifestariei zuzendu zitzaien.

1931ko apirilaren 15eko euskal prentsak aurreko egunean Hego Euskal Herriko hainbat herritan gertatutakoaren berri eman zuen. Herri askotan bat-bateko manifestazioak egin ziren, eta Gernikako arbola abestu

zen, besteak beste. Donostian, ANVko zinegotziak zeuden batzorde batek, besteak beste, ikurrina altxatzeko eta Euskal Errepublika aldarrikatzeko eskatu zion Fernando Sasiain Komite Errepublikanoko ordezkariari. Bilbon, udalak Euskal Errepublika aldarrikatu zuen eta ikurrina altxatu zen; Iruñean, errepublikaren aldeko manifestazioetan, Euskal Errepublikaren aldeko oihuak entzun ziren. Gasteizen manifestazio bat egin zen, eta espetxera zuzendu zen, preso politikoak noiz aterako zain. Gainera, prentsak jasotzen duenez, gazte talde batek udaletxeko osoko bilkuren aretoan sartu eta Alfonso XIII.aren erretratu bat hautsi zuen.



ENTZUN. HITZ EGIN

Hitz egiteko,
entzun egiten
dugulako.

naiz:irratia

naiz:irratia

Donostia 93.8 / Urola 91.8 / Goierri 102.2 / Legazpi 94.6 /
Bilbo 92.2 / Gernika 96.7 / Durango 97.4 / Gasteiz 91.5 /
Bortziriak 103.1 / Leitza 95.1

irratia.naiz.eus

